
Euskaltzaindiaren
Oroit-Idazkia
1985-1986



Memoria
1985-1986
Real Academia de la Lengua Vasca
Euskaltzaindia







EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA



**Euskaltzaindiaren
Oroit-Idazkia
1985-1986**

Copyright

Euskaltzaindia

Arbieto, 3 - 48008 Bilbao.

Amado moldiztegia

Alda. Mazarredo, 35 - 48009 Bilbao.

Legezko Gordailua: BI-1096-1987.

A U R K I B I D E A

	<u>1985</u>	<u>1986</u>
1.- EKINTZA OROKORRAK	7	45
2.- IKER SAILEKO BATZORDEAK	15	55
3.- JAGON SAILEKO BATZORDEAK	23	71
4.- AKADEMI-ZERBITZUAK	29	81
5.- EKONOMIA	39	91
6.- AURKITEGIA		97

1. EKINTZA OROKORRAK

1.1. BILKURA ETA AKADEMI BILERAK

Euskaltzaindiak bere hileroko batzarre arruntak 1985. urtean era honetara egin zituen, hots: Gipuzkoako Foru Diputazioan, sei; Bilboko Plaza Barriko Egoitzan, bi; Gasteiz eta Iruñeko Ordezkaritzetan, bana eta Baztanen, beste bat.

Ohizko bilkurez gainera, Euskaltzaindiak epe honetan zenbait mendeurren eta gertakari ospatu zituen, batzar irekiak eginez:

- Urtarrilaren 25 eta 26an, V. Dialektologi Jardunaldiak Gasteizen, Arabako Ordezkaritza inauguratuz. Bertan egin zen hileroko batzarrean, txosten eta aipamen bereziak eskaini zitzaizkion Odon Apraiz, euskaltzain ohorezko zendu berriari.

- Martxoaren 31n Baztango ibarrean, bi gertakari izan zituen: Lekarotzen, Euskaltzaindiaren IV. Barne Jardunaldiak, hilaren 29 eta 30ean, bertan Batzorde guztien lan eta berregituratzea aztertuz eta hurrengo urteetarako ibilpidearen hari nagusiak markatuz. Bestea, Pello Salaburu euskaltzain oso berriaren sarrera egin zen, Arizkun beraren jaioterrian.

- Plaza Barriko Egoitza berrian, Maiatzeko batzarraren parte bat aprobe txatuz, Gabriel Arestiri hiru txosten eskaini zitzaizkion, bere heriotzaren 10. urtemuga gogoratuz. Juan San Martin, Xabier Kintana eta Jose Antonio Arana/F. Oroz Arizkuren izan ziren parte hartu zutenak.

- Ekainaren 27an, Conde Oliveto 2an, Euskaltzaindiaren Nafarroako Ordezkaritza berria inauguratu zen. Euskaltzainburuz gain, Roman Felones, Nafarroako Kultura eta Hezkuntza Kontseilaria; Javier Iturbide, "Príncipe de Viana" Elkargoko zuzendaria; Jose M^a Satrustegi, Idazkaria eta Patxi Altuna, Gramatika Batzordeburua izan ziren mahaipuruko. Azken honek aurkeztu zuen Euskal Gramatika Lehen Urratsak - I izeneko liburu mardula, Euskaltzaindiaren X. Biltzarrean aztergai nagusia izan zena, hain zuzen.

- Abenduaren 20an, goraipatu zuen Euskaltzaindiak Donostian, Francisco Javier Munibe Peñafloredako Kondea, beraren bigarren mendeurrenean. Euskaltzainburuaz gain, Iñaki Barriola, Euskal Herriko Adiskideen Gipuzkoako Ordezkarria; Jon Juaristi, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea; Juan San Martin, Euskaltzaindiko Jagon Sailburua eta Xabier Altziabar, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea mintzatu ziren, bakoitzak gai desberdinetatik Peñafloredaren lanak aztertuz eta goraipatuz.

1.2. EKINTZA ORDEZKAGARRIAK

Euskaltzainburugoak eta beste Erakundeko kide batzuk 1985ean, ekintza, ikustaldi eta ospakizun hauetan hartu dute parte, Euskaltzaindia ordezkatuz:

- Urtarrilaren 3an, Euskaltzainburugo osoak bisita egiten dio Piarres Lafitte euskaltzainari, Baionako St. Leon Ospitalean, hil baino aste gutxi lehenago.

- Hilabete berean, 10 eta 11n hain zuzen, Euskararen Aholku Kontseiluak bere batzarrak egiten ditu Argomaizen. Jean Haritschelhar jaunak ordezkatu zuen Euskaltzaindia, baina baziren beste euskaltzain oso eta urgazle zenbait ere tartean. Urtean zehar beste zenbait bilera eginez.

- 19an, euskaltzain ohorezko den Iñaki Eizmendi "Basarri"ri omenaldia eskaini zion Zarauzko herriak, Juan San Martin, Jagon Sailburua; Endrike Knörr, Diruzaina eta Jose Luis Lizundia, Idazkari-ordeak osotu zuten ordezkaritza.

- Otsailaren 15ean, UNESCOren **Albistariaren** euskarazko edizioa aurkeztu zen Donostian, Nazioarteko Erakunde honen ordezkarri eta Eusko Jaurlaritzako Kultur Kontseilaria, besteak beste, mintzatu zirelarik. Juan San Martin, Jagon Sailburua eta Jose Luis Lizundia, Idazkari-ordea egon ziren bertan.

- 24ean, Eusko Ikaskuntzak Jorge de Riezu euskaltzain ohorezkoari omenaldia eskaini zion Lekarotzen, A. Francisco Ondarra eta Jose Antonio Arana jaunek eraman zuten Euskaltzaindiaren ordezkarietza.

- Martxoaren 13an, Jose Antonio Ardanza Lehendakari berriak, Euskaltzainburugoa hartu zuen Ajuriaenean.

- Apirilaren 23an, Erregeak urtero, Zarzuela Jauregian, Kultur munduko erakunde eta Espainiako gizon-andereentzat eratzen duen harremanezko batzarrerara, Endrike Knörr, Pello Salaburu eta Juan San Martin euskaltzainak joan ziren.

- Juan San Martin, Jagon Sailburu legez, Euskaltzaindiaren ordezkaria da HABE Patronatoan eta horregatik, Erakunde horren zenbait bilkuretan parte hartu zuen.

- Ekainean, Pello Salaburu izendatu zen Getxoko Udalak **Jose Antonio Agirre Lekube Lehendakaria** izeneko ikerlan lehiaketarako epaimahaian Euskaltzaindiaren ordezkari.

- Urriaren 4, 5 eta 6an, galiziar, kataluniar eta euskal idazleen II. Jardunaldiak antolatu zituen Donostian Euskal Idazleen Elkarteak, Euskaltzaindiak bere ordezkarietza izanik.

- Azaroaren 22an, Madrilgo Kultur Ministeritzak eratutako **"Premio de las Letras Españolas"** sariaren epaimahaian Jose M^a Satrustegi jauna egon zen. Saria euskaltzain ohorezko den Julio Caro Barojari eman zitzaion.

- Abenduaren 6an, Claudio Sagarzazu "Satarka" olerkari eta euskaltzain urgazleari egindako omenaldian parte hartu zuen. Euskaltzaindiko ordezkari jaun hauek izanik: Xabier Aranburu, Juan M^a Lekuona eta Juan San Martin.

- Abenduan baita ere, **"Conseil national des langues et cultures regionales"** Erakundean kide izendatua izan zen Jean Haritschelhar Euskaltzainburu-ordea.

- Abenduaren 14ean, Antonio Tovar Espainiako Hizkuntza-ren Erret Akademiaren kide oso eta euskaltzain ohorezkoa zenaren hiletara, Euskaltzaindiaren ordezkari, Pedro Yri-zar euskaltzain urgazleak, eraman zuen.

- Jose M^a Satrustegi Nafarroako Kultur Kontseiluko kide denez, urteko bilera guztietan parte hartu du.

1.3. ZENBAIT EKINTZA ETA GERTAKARI AKADEMIKOREN AIPAMENA

- Euskaltzain eta Arabako Ordezkari den Endrike Knörr jaunak, Odon Apraiz -arabar ikerlari eta euskaltzain ohorezko zenaren- liburutegi, hemeroteka eta artxibategiaren katalogatze eta ordenatze lanari ekin dio.

- Ikerlan berdina amaitu zuen Piarres Charritton jaunak, Piarres Lafitte gramatikalari, idazle eta euskaltzain zenaren lanetan.

- Urte hasieran izendatu berri ziren euskaltzain ohorezko berriei banatu zitzaizkien diplomak: Jacques Allières, Balentin Enbeita, Iñaki Eizmendi "Basarri", Nils M. Holmer, Jesus M^a Leizaola, André Martinet eta Terence H. Wilbur.

- Otsailaren 26an, Piarres Lafitte euskaltzainaren hiletak izan ziren Uztaritzen, Baionako Apezpikua izan zen meza emaile nagusia. Jean Hiriart-Urruty euskaltzainak egin zuen predikua. Euskaltzainburuak hitzen batzu esan zituen. Elizkizunean euskaltzain oso eta urgazle asko bildu zen.

- Piarres Lafitte euskaltzain oso zenaren hutsartea adierazten da Apirileko batzarrean, eta Piarres Charritton hautatzen haren ordez, Uztailean.

- Maiatzaren 20an, Madrilen Estatuko Hizkuntz Akademien arteko Jardunaldia izan zen, "Real Academia de la Lengua Española", "Real Academia Galega", "Institut d'Estudis Catalans" eta Euskaltzaindikoko ordezkariak partaide izanik. Hurrengokoa Galizian egitea erabaki zen.

- Uztailaren 10ean, Jose M^a Makua, Bizkaiko Diputatu Nagusia eta A. Luis Villasante Euskaltzainburuak, Jose M^a Arriola Bilboko notariaren aurrean sinatu zuten Plaza Barriko Egoitzari buruzko hitzarmena. Patxi Zurikarai, Kulturako Foru Diputatua eta zenbait Euskaltzaindikoko lekuko zirelarik.

- Urriko eta Azaroko batzarretan ikerketa-txosten interesgarri bi irakurri ziren. Bata **"Vascuence y romance"** izenekoa A. Ignacio Omaetxebarriarena eta bestea, **"El euskera en el Archivo General de Indias"** Jose Garmendia Arruabarrena-rena.

- Azaroko batzarrean bertan, Endrike Knörr jaunak ikerketa jakingarri baten berri eman zuen, André Baratziart Lapurdiko euskal idazlearen sorterrria aurkitu zuelarik, Arabako Durana hain zuzen.

- Azaroaren 7an, Iruñean bildu zen Euskaltzainburugoa nafar euskaltzain eta urgazle guztiei dei eginez. Bertan, Nafarroako Gobernuak prestatu zuen Euskararen Lege Aurre-proiektua salatu zuen gure hizkuntzaren erabilpenerako kaltegarria dela adieraziz.

- Abenduaren 11tik 22ra, Euskaltzaindiaren izenean joan ziren, Endrike Knörr, Jose Antonio Arana Martija eta Xabier Gereño Estatu Batuetara. Bidaia hau **"Comité Conjunto Hispano-Norteamericano para la Cooperación Cultural y Educativa"** delakoak babestua izan zen.

Nevadako Unibertsitatea, Chicagoko "New Berri Library", Washingtingo "Library of Congress" eta "New York Public Library" liburutegiak ikusi zituzten batez ere, euskal fondoak arakatzuz. Beste zenbait erakunde edo elkarte ere bisitatu zituzten, hala nola, San Franciscoko "Basque Cultural Center", Renoko "Basque Studies Program" eta abar. Ameriketako Fundazioei buruz zenbait harreman egin ziren.

- Abenduaren 16an, Euskal Herriko Unibertsitatearen Arabako Campusean, Luis Mitxelena euskaltzainaren katedra jubilazioa zela eta, beraren omenez ateratako Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae liburuaren tomo biak aurkeztu ziren, Euskaltzaindiko askok parte hartuz.

2. I K E R S A I L E K O B A T Z O R D E A K

2.1. HIZTEGIGINTZA BATZORDEA

Hiztegegintza Batzordearen ekintzak azaltzerakoan honako atal hauek dira adierazgarriak, hots:

a) Orotariko Euskal Hiztegia, 1984ean abiatu zenetik, bere bidean aurrera egin du. Eusko Jaurlaritzaren Informatika Zerbitzuaren bidez, euskal literaturaren idazlerik garrantzitsuenak eta euskalki guztietakoak hustu dira, ahalik eta hiztegirik neutroena atera dadin. 3.000.000 hitz bildu da, hain zuzen. Luis Mitxelenak, urteetan zehar prestatutako material guztia ere, sartua da.

b) Maileguzko hitzen idazkera dela eta, 1983 eta 1984.eko Jardunaldietan Hiztegegintza Batzordeak bideratutako emaitzetan oinarriturik euskaltzain osoek banan-banako erabakitze lanean jardun dute urte osoz. Hileroko batzar-agirietan agertuz joan dira; lan horren ondorioz, maileguzko hitzen erabilera zuzenerako erabaki eta gomendioak. Horren fruitu izan da hain zuzen, Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak argitalpena. Bertan zortzi ataletan agertzen dira banan-bana erabaki hauek:

I. Hitz-hasierak

II. Hitz-bukaerak

III. G-edo (j) -latinez bederen- bere baitan dutenak

IV. X bere baitan dutenak

V. Txistukaria+l, n, r; bi sudurkari elkarren ondoan

VI. Bi kontsonante oklusibo edota baten ondoren sudurkaria edo (j) -latinez bederen- dutenak

VII. Hiru kontsonantezko multzoak

VIII. Bi txistukari elkarren ondoan eta txistukaria+ oklusiboa.

c) Hiztegi-gintza Batzordearen epe ertain eta luzerako plangintza. Aurreko urtean hasitako bideari eutsiz pausu sendoak eman ditu Euskaltzaindiak, 1985ean, hiztegi-gintzaren alorrean hurrengo hamabi bat urtean egin beharreko lanak finkatuz:

Gai hauek bideratzeko asmoz bilera bi egin dira, hain zuzen, 1985ean:

- Lehena Lekarotzen, Martxoaren 29 eta 30eko Jardunaldi-etan.

- Bigarrena Donostian, Uztailaren 19ko batzarrean.

- Ekinaldi horien ondorioz erabakiak gelditu dira hurrengo bospasei urterako ekinbide nagusiak. Uztailaren 19an aurkeztutako txostenak ematen du egitasmo ihardupide guzti horien berri.

1985.eko balantzea, hitz gutxitara biltzekotan, Hiztegi-gintza Batzordearentzat tarte-bitarteko urtea izan dela esan daiteke: maileguzko hitzen atalari amaiera eman zaio eta, beste aldetik, Orotariko Euskal Hiztegiaren aurrerabideari sendo eusteaz gainera lan-programa berri eta garrantzitsuen epe ertain eta luzerako plangintza burutu da.

Sail honetan koka daiteke Miren Azkarate andereak, Urriko batzarrean "**Euskal konposizioaren inguruan**" aurkeztutako ikerlan-txostena.

2.2. GRAMATIKA BATZORDEA

Batzordeak, 1985. urtean kaleratu du Euskal Gramatika: Lehen Urratsak - I. Liburu hau, funtsean, Iruñean aurkeztu zen testu bera da, zenbait lagunen kritikak jaso ondoren ezarri zitzaizkion aldaketak eta beste zertxobait erantsirik.

Batzorde honi HIZPALekoek egindako zenbait itauni erantzuten ere saiatu zen.

Gero eta garbiago ikusten da Batzorde honetan informazioa era zabalago eta orekatuagoan eskuratzea nahitaezkoa dela. Horretarako, Hiztegi Orokorrerako bildu den "corpus"az baliatzeari beharrezko deritza.

Aditzaren azterketa eta aurkezpenarekin jarraitu zuen 1985.eko urte honetan. Lehendabizi, perpaus bakunaren gramatika izango dena osatu beharra da, eta aditzari dagokion parte orain artekoan sartu ez denez, honi ekin zitzaion batez ere.

Euskaltzaindiaren aginduz, gramatika lan bati buruz eman behar izan zuen eritzia. Lan horrek Bizkaieraren idatzizko arauak.- II Joskera zuen izenburutzat. Ez zen xehetasunetan sartu. Baina bai, eritzi orokorra eman ahal izan zuen.

1985.eko urtean, Batzordeak, 15 bilera egin zituen. Horrez gain, beste pare bat bilkura ere egin zituen zenbait kidek Eusko Jaurlaritzaren Informatika Erakundea eta Hiztegi Orokorren arduradunekin. Bilera hauetan hiru gai nagusi izan ditu eskuartean: a) liburuaren argitalpena eta HIZPAL-ekoen galdeak; b) gure informazioa gehitzeko bideak ziurtatzea eta c) aditzaren gramatikarekin hastea.

2.3. DIALEKTOLOGI BATZORDEA

Batzorde honen xede nagusia Euskal herriko Atlas Linguistikoa izan zen. Horretarako V. Dialektologi Jardunaldiak antolatu ziren 1985.eko Urtarrilaren 25 eta 26an Gasteizen. Bertan, Atlaserako galdekizun osoa aurkeztu zen eta aholkularien oharrak jaso. Horrez gain, Bilbon, fonetika saioa egin zen transkribaketak eta sonogramak aurkeztuz.

Atlasgintza honetarako interesgarri izan dira, Ozitaniako Tolosara eta Strasburgora egindako bidaiak Unibertsitate bietako aholku, esperientzia eta abar jasotzeko; batez ere, alfabeto fonetikoarekin ordenagailuaz baliatzeko.

Urtean zehar, Talde Teknikoak, Bilbon, Donostian edo Baionan, egin zituen hogeitahamar bilera arruntetan, hain zuzen, Atlasgintzako gai hauek jorratu zituen:

- Kartografia eta etnografiari buruzko oharrak.
- Inkesta puntuak.
- Alfabeto fonetikoa.
- Informatika ikastaroa, fonetika saioa.
- Informatika eta atlasa.
- Galdekizunaren perifrasi guztiak.
- Lekukoak aukeratzeko oharrak.
- Galdekizunari morfologia galdea batzu erantsi.
- Erantzun fitxa.
- Fitxak betetzeko kodea.
- Lekukoaren fitxa.
- Transkribatzailearen fitxa.
- Grabaketa saio baten azterketa.
- Lankide berrientzat ikastaroa prestatu.
- Grabaketak.

Eremu honen inguruko gaiez txosten hauek eman ziren: **"Baztango hiztegi ttipia"** izenekoa, Ekainean, Mariano Izetak bildua; **"Zuberoera eta batua"**, Jean Louis Davant jaunak eta **"Ekialdeko bizkaiera"**, A. Luis Baraiazarra jaunak, azken biok Irailean aurkeztuak eta eztabaidatuak.

2.4. ONOMASTIKA BATZORDEA

Ohizko lanei jarraituz udalen izen aldaketari buruz, herri hauetarako erizpen argibideak eman dira: Errigoiti, Laudio, Munitibar, Ugao, Orozko eta Barakaldo.

Bestalde, herrietako auzo, kale eta toponomastika galdera hauek erantzun dira: Erandio, Lizarra, Guenes, Orozko eta Iruñerriko bi herrixka.

Bizkaiko Foru Diputazioari Jaurreriko mapa berrirako zuzenketa orokor eta zehatz-mehazkoa egin zaio, hasi merinalde edo eskualde izenetatik eta errepidea duten auzorik txiki-enetaraino. Beste Foru Diputazioei ere, kontsulta bat edo beste erantzun zaie.

Eusko Trenbideen eskariz, beraren bost lineetako, hots, Hendaia-Donostia, Donostia-Bilbo, Zornotza-Bermeo, Bilbo-Txorierra eta Bilbo-Plentziako geltoki eta geraleku guztien euskal bertsioen erizpena eman da. Orobat, Uribe aldean dituen autobus lineetako geralekuena ere.

Bide seinaleztapenean diharduten zenbait enpresen kontsultak erantzun dira, hala nola: Norte Industrial, Autopista Vasco-Aragonesa, Europistas, Jefatura de Tráfico, Nafarroako DYA, Gorosti Elkarte (Nafarroako Trekuharri guztien seinaliztapenak) eta abar.

Batzordeak 1986rako Euskal Herriko Toponimia I Jardunaldien programa akademikoa prestatu du.

Batzordeak agiria zabaldu zuen herri eta toki izenei buruz legeez egiten diren eta euskal toponimiaren kontrako erabilpenak salatuz.

Baita ere, eta urteetako lanari jarraiturik, pertsona izenei buruzko erizpenak eman dira: Juzgaduetako itzulpen agiriak; izenen jatorria eta historiaz; Euskal Herritik kanpo jasotako galdera ugariri erantzuna, adibidez Hong-Kong-dik, Espainiako Atzerri Arazoetako Ministeritzaren bidez eskatutako

Izendegiak. Deiturei buruzko zenbait kontsultari erantzun zaie.

Eremu honi dagokion ikerketez txosten interesgarri bi eman zituen Jose M^a Jimeno Jurio jaunak, **"Iruñerriko toponimiaz"** bata, Otsailean eta **"Hagionimoak, toponimoak izkutatzeaz"**, Ekainean, bestea.

Argitalpen bilduma berri bat sortzea erabaki zen, propioki Batzorde honetako ikerlanak argitaratzeko, **Onomasticon Vasconiae** izenekoa hain zuzen, berau Argitalpen batzordeak, Etxebarrin, 1985-9-26an onartu zuelarik.

3. J A G O N S A I L E K O B A T Z O R D E A K

3.1. LITERATURA BATZORDEA

Batzorde honen asmoa, lehen-lehenetik euskara idatziaren estilistika ateratzea izan zen. Hori egiteko idazle klasikoak hautatu zituen eta bereziki, Axular eta Leizarraga.

Urtean zehar egindako azterketaren ondorioz, literatura teorian hainbat kuestio agertu ditu.

Axularren GEROri buruz, erretorikaren kanonak ikertu dira, hiru sintaxi mota erabiltzen dituelarik. Obra honen estilistika hobeto ezagutzera heldu da.

Federico Krutwig Batzordeburuak lana burutu zuen "prolegomena" izenez. Aztertutako gaiak hauek izanik:

- Denboraren ideia euskal gramátikan: aspektua (etorkizuna/joankizuna), aoristoa, potentzial tipoak, egutze zentzuetarikoak, ezagutza oroitzapenekoak.

- Deklinabideko kasu hauek: absolutua, datibo etikoa eta hartzailea.

- Tratamenduak.

- Hizkuntzaren "hizkuntza mailak".

Alfonso Irigoyen Batzordeburu-ordeak "En torno a la evolución y desarrollo del sistema verbal vasco" izeneko lanaren azterketa egin zuen, hain zuzen aoristoz.

Jesus Lavin Batzordekideak, Leizarragaren Testamentu Berria eta beste izkribu batzutan agertzen diren hitz bilketa egin zuen. Itzulpenak, grekoz, latinez, ingelesez eta gaztelaniaz agertzen dira.

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren babespean antolatu zuen "Txomin Agirre" nobela sariketa.

Jaurlearitzako Kultura eta Turismo Sailak, iragarritako Literaturgintza laguntza lehiaketarako Euskaltzaindiaren ize-nean epaimahaikide Alfonso Irigoyen jauna izendatu zen. Euskaltzain berau "Isabel Lertxundi" eta "Jesus M^a Aldai" Durangoko idatz-lehiaketarako ere.

Madrideko Kultura Ministraritzak eskaturik epaimahai-kide izendatu ziren: Literatura Sorketarako, Patxi Altuna; Itzultzaileena, Alfonso Irigoyen; Premio Nacional de Literatura, Jose Antonio Loidi eta Premio Nacional de las Letras Españolas, Jose M^a Satrustegi. Azken hau euskaltzain ohorezko den Julio Caro Barojak irabazi zuen.

Zestoako Euskal Zinemaren Topaketetan, Juan San Martin izan zen Euskaltzaindiaren ordezkari.

3.2. BERTSOLARITZA BATZORDEA

Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa prestatzeko lehen urratsak ematen ditu. Gero, sortu berri den Bertsolarien Elkartek bere esku hartzen du Txapelketa hori antolatzeko ardurara, Euskaltzaindia erantzunkizun horretatik aske geratuz. Euskaltzaindiak, Lekarotzen 1985-III-29/30 egindako IV. Barne Jardunaldietan, Batzorde honen izena Herri Literatura izango dela aurrerantzean, onartu zuen.

3.3. ETSAMINEN BATZORDEA

Batzorde honek bi funtzio bete ditu.

- Euskararen Gaitasun Agiria lortzeko azterketak deitu eta zuzentzea.

- Administrazioko lantokietarako frogak aztertzen dituzten epaimahaietan parte hartzea.

Lehen betekizuna dela eta, Euskal Komunitate Autonomoan Eusko Jaurlaritzaren esku gelditu zenez, Nafarroan bakarrik eta hemen ere azkenetan egin du betekizun hori. Ekainaren 14ean egin zen azterketa eta 260 aurkeztu ziren, beraietatik 79k gainditu zutelarik etsamina. Zifra hauek aurreko urteetako ei eransten badizkiegu 1972tik 1985era, gure Erakundeak banatu duen titulu kopurua: 6.701era heltzen zaigu.

Bigarren atalari dagokionez, Euskaltzaindiak 52 frogatan esku hartu zuen 1985ean, 23 udaletan eginak, hasi Gasteiztik eta Ordiziatik zehar Gueñeserartekoak. Froga hauetatik, zazpi, euskararen zerbitzu arduradun edo itzultzaileetarakoak izan ziren. Kronologikoki udal hauetakoak: Otxandio, Gasteiz (2), Galdakao, Bilbo, Erandio eta Sopela.

Honetaz azpimarratu beharra dago Euskaltzaindiak 1985.eko urte bukaeran amaitutzat eman duela Administrazioko epaimahai hauetara joatea, euskararen zerbitzu arduradun edo itzultzaileetarako ez bada. Uste du EGArekin egin zuen antzera, Administrazioari, HAEE/IVAPi zuzenean edo Batxilergo Institutuetako euskal katedradun edo irakasleekin baliaturik egin daitekeela, euskara eskatzen den Herri Administrazioko gainontzeko lanpostuetarako epaimahai guztietan.

4. A K A D E M I - Z E R B I T Z U A K

4.1. ADMINISTRARITZA ETA BULEGOAK

Euskaltzaindiko Egoitzara eta Ordezkaritzetara egunero heltzen dira galdera eta kontsultak. Bestalde, administrarritza-arazoak ere bertatik eramaten dira, biltzar, batzar, jardunaldi eta barne ibilpide ororen antolakizunaz batera.

Arautegiaren 13. artikulua aipatzen dituen zereginak, alegia, jendearekiko eskakizun arrunten arta izateak geroago eta lan gehiago ematen du. Telefonoz eta gutunez ehundaka galdera, kontsulta eta abar, euskararen ikerkuntzaz, egoeraz, erakunderatzeaz eta Akademiak berariaz. Euskaltzaindira etorri direnak ere ez dira gutxiago izan eta ez bakarrik Egoitzara, baita Ordezkaritzetara ere, honela, hauek, Barne Erregelaren 34. artikulua egotzen dizkiena oparo bete bai dute. Bat azpimarratzekotan, joan den urtean Iruñekoak hartu duen eragin berria aipatu daiteke. Nahiz eta azkena kokatua izan, Nafarroan gure presentzia hobeki ezagutarazi du. Gasteiz eta Donostiakoak -hau urteetan egonik- biok lehenagotik jendearekiko zerbitzuetan tinkotuak daude.

Administrarritza aldetik, 1985. urtean areagotu dira beste Erakundeekiko harremanak, bai Foru Diputazioekin, Nafarroako Gobernua barne, bai Eusko Jaurlaritzarekin eta bai Gobernu Zentralarekin ere. Azpimarratzekoa izan da Euskal Gobernuak Hizkuntz Politikarako Idazkaritzarekin bideratu den harreman-erakunderatze iraunkorra.

Euskaltzainburugoak eta Idazkaritzak, bestalde, kultur eta ikerkuntza erakundeekin, lehenik datozten harremanak ugaritu ditu, batez ere Hizkuntz-Akademiekin.

1985. urtean Euskaltzaindiaren Egoitzaren kokalekua bideratu da. 1919. urtean "behin-behingo" etxetzat jo zuen Bilboko Erribera kalekoa, eta arrez gero han iraun du, orain bulegoak, ezin bestean eta leku faltaz, Arbieta kaleko Diputazioaren etxe batetan badiardute ere. Bizkaiko Foru

Diputazioak, mende honen lehen urterarte bere egotitza zena, Zazpi Kaleetako Plaza Barrian "Banco de Bilbao"ri erosi zion 1984. urtean eta iaz gure eskuetara pasatu. Ondoren, 1985.eko Abenduaren 27an, Gernikako Batzar Nagusiek birretsi zuten Jaurerriko Aurrekontu Orokorretan Euskaltzaindiaren Egoitzaren berriztatzea, hots, 1986rako 49.300.000 pezeta jarritz. Horretarako arkitekto bik, Txema Basañez eta Eduardo de Felipek, txosten teknikoa prestatu dute, bertan oinarrituko direlarik burutuko duten erabateko proiektua. Beraz, Plaza Barrian joango dira, laster, Euskaltzaindiaren administral-bulegoak, Biblioteka-Artxibategia, batzorde mintegi eta ikerlekuak, argitalpen zerbitzuak eta abar.

4.2. "AZKUE BIBLIOTEKA" BATZORDEA

1985. urtean zehar 5.156 ale sartu dira Euskaltzaindiaren Bibliotekan; hauetatik 3.516 dohainik, eta beste 1.640, erosiak edo trukez. Kopuru honetan ez dira kontutan hartzen Jokin Zaitegiaren fondoetatik lortutakoak eta Odon Apraizen hemeroteka eta liburutegitik ekarritakoak. Fondo hauen katalogatzea amaitzeke dagoelako.

"Azkue Biblioteka" k EXPOLANGUES 1985. erako lau hizkuntzetan liburuxka bat prestatu zuen, erakusketa horretarako, Eusko Jaurlaritzak argitaratua.

"Ernesto Ortiz de Bidasolo" fondoko liburu zaharren erakusketa antolatu zuen.

"Azkue Biblioteka" ko langileak bibliotekalogiazko ikastaroa egin zuten, Eusko Ikaskuntzak antolatutakoa, hain zuzen.

Harreman eta informazio zerbitzu mailan, "Azkue Biblioteka" k hainbat erakunderekin lortu berri edo sendotu egin ditu, hots: "Centro de Información y Documentación del Consejo Superior de Investigaciones Científicas", "Institut d'Estudis Catalans", Euskal Herriko Unibertsitatea, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea/IVAP, Euskal Irrati Telebista, eta abar.

4.3.1. ARGITALPENEN BATZORDEA

Liburu hauek atondu zituen 1985ean:

1.- EUSKERA 1985,1. Euskaltzaindiaren X. Biltzarreko txosten, komunikazio eta aktak agertzen zirelarik.

2.- Bayonako Diocesaco Bi-garren Catichima, Luis Villasantek paratua. Pierre Guillaume de Lavieuxville-Graziano Harosteguy-k 1733an idatzi zuen. Gasteizko Udalaren babespean argitaratua. Bildumako 11. zenbakia.

3.- Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak izeneko liburua prestatu zen.

4.- Euskal Gramatika: Lehen Urratsak - I. Etorkizunari begira euskararen ereduazko gramatika gorpuzteko Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordeak, Iruñean, A. Campionen omenez eratu zuen X. Biltzarrean buruturiko lana. Bi argitalpen izan zituen urte horretan, lehenengoa Ekainean aurkeztu zen eta Urrian bigarrena.

Oinarrizko Euskara sailean argitaratuak:

5.- Oier, Xabier eta Amaiaeren bihurrikeriak. Euskara ikasleentzat lehen mailako irakurgaiak.

6.- San Braulioko eroa. Euskara ikasleentzat lehen mailako irakurgaiak.

7.- Haizeak eraman ez dituen hitzak. Euskara ikasleentzat lehen mailako irakurgaiak.

8.- Beldur naiz. 1984.ean "Felipe Arrese Beitia" olerki saria irabazi zuen lana.

9.- Euskaltzaindiaren Oroit-idazkia (1983-1984). Euskaltzaindiaren historia laburra eta gero 1983 eta 1984 urteetan buruturiko egintza eta lanen zehaztasunak eta azalpenak.

4.3.2. ARGITALPENEN BANAKETA ZERBITZUA

Argitalpenen katalogoa. Azken urteotan bezala, Euskaltzaindiaren Azaroko batzarrerako eta Durangoko Liburu Azoka bezperetan argitaratu zuen bere Argitalpenen katalogo liburuxka. Bertan 102 lan azaltzen dira. Liburuon zabalkundea Egoitzako Banaketa Zerbitzuaren eta zenbait banaketa zerbitzu pribaturen bidez egiten da.

EUSKERA Agerkaria. Euskaltzaindiaren agerkari ofizial honek 557 harpidedun dauzka. Liburu hau Euskal herriko erakunde, entitate eta biblioteketan banatzen da eta baita Estatu eta Nazioarte mailan ere, gehienbat argitalpenen trukez.

Liburuen salmenta. Zerbitzu honek 1985ean 23.000 liburu saldu zituen, guztira 11.023.542 pezetatako salmenta kopurua izanik. Hemen ez dira sartzen, noski, trukezko ditugun hainbeste harreman, ez eta dohainik euskaltzainen artean eta laguntza ematen diguten erakunde ofizialetara dohainik banatzen diren liburuak ere.

Gordailu berria. Urte honetako Irailaren 26an inauguratu zuen Argitalpen Batzordeak, Etxebarrin, aurreko urtean erosi zuen gordailu berria. 875 metro karratu ditu, industri solairua da, Lankide Aurrezki Kutxaren kreditu batez erosi ahal izan delarik.

Gordailu honetan, 140.000 liburutik gora bildu dira, orain arte sakabanatuta eta modu txarrean zeudenak. Bertan kokatu dira baita ere, "Azkue Biblioteka"n, toki ezagatik, hainbat eta hainbat liburu, adibidez, Jokin Zaitegiren fondoak.

EXPOLANGUES deritzan eta Parisen egiten den Nazioarteko liburu erakusketara joan zen Euskaltzaindia bigarren aldiz, Eusko Jaurlaritzak babesturik. Otsailaren hasieran izan zen.

Euskaltzaindiak, urtero bezala, zenbait azokatan parte hartu zuen, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka nagusian eta Euskal Komunitate Autonomoko Donostia eta Bilbo hiriburuetan, Gasteizen ez bait zen egin. Bilbon, Maiatzaren 2tik 19ra; Donostian, Irailaren 4tik 8ra eta Durangon, Abenduaren 5etik 8ra.

4.4. ITZULPEN ETA KONTSULTA ZERBITZUA

1985. urtean berrehun eta hamar (210) itzulpen burutu ditu Euskaltzaindiko Argitalpenen Eragileak.

Buruturiko itzulpenak hurrengo erara banatu ahal dira, alegia:

- **Erakundeak:** Telefónica, Bilboko Nazioarteko Erakustazoka, Bilbo Haundiko Uren Partzuergoa, Eusko Jaurlaritzza, Bizkaiko Foru Diputazioa, Iberia, Cadem, Renfe, Eusko Trenbideak, Colegio Oficial de Farmacéuticos de Guipúzcoa, Obispado de Bilbao, Sindicato ELA, Jefatura de Tráfico de Vizcaya, Colegio Oficial de Doctores y Licenciados en Filosofía y Letras, Unicef, Colegio de Aparejadores, Cruz Roja Española, Colegio Oficial de Péritos e Ingenieros Técnicos Industriales, Real Sociedad de Fútbol, Hospital de Galdakao, Hospital Psiquiátrico de Zamudio, Museo Arqueológico, Disminuidos Físicos de Vizcaya, Federación Vizcaína de Tennis.

- **Banku eta Aurrezki Kutxak:** Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Banco de Bilbao, Banco Atlántico, Lankide Aurrezki Kutxa.

- **Publizitate enpresak:** Aurman, Estudios Daniel, Danis Benson & Bowies S.A., Margoak, Publicidad Erice, Publicidad Síntesis, Publicidad Clarín, Estudios Arriaga.


- **Udalak:** Bilbo, Erandio, Eibar, Areatza, Ugao, Dima, Igorre, Sopela.

Beste 27 enpresa partikularrei, hauetatik aipagarrienak: Iberduero, Eroski, Autopista Vasco Aragonesa, El Corte Inglés, Editorial Santillana, eta abar.

Zerbitzu honek, aldi berean eta kontsulta mailan, hurrengo gaiei erantzuna eskaini die, Euskaltzaindiaren Egoitzan, alegia: euskal gramatika, metodologia, bibliografia, hiztegi-gintza, eta abar, eta abar.

Bestalde, Euskaltzaindiak Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioak eskaturik "Nafarroako Foruaren Hobekuntza" Legearen itzulpena bideratu du, azken orrazketa bere kontu harturik. Horrekin batera, "Desplegable informativo" deritzan Nafarroako Administraritzaren organigrama osoarena.

5. EKONOMIA



5.1. EKONOMI BATZORDEA

Ekonomi Batzordea 1985 urtean bi helburu nagusiekin aritu da lanean: diruiturriak ugaltzea eta dirulaguntza horiek gure Erakundearen eginkizun funtsezkoenak bultzatzeko erabiltzea.

Aurrekontuari buruz esan dezakegu, gure ekintzak bezala, ugaltze egin dela, iazkoagandik %29,68ko igotzea izan baitu. Baina, Herri Erakundeetan gertatu ziren aldaketak direla eta, oso egoera larri eta premiatsu batetan aurkitu da Euskaltzaindia. Bizkaiko Aurrezki Kutxari 9.000.000 pezetatako mailegu bat eskatu diolarik. Egoera hau dela eta Ekonomi Batzordeak lan eta ahal-egin berezi eta neketsuak burutu behar izan ditu hestualdi hau gainditu ahal izateko.

Gauzak hobetu nahian, gure Batzordeak 1986. urterako Aurrekontua prestatu ondoren, Ekainaren 27ko Batzarrean aurkeztu zion Euskaltzaindiari eta Uztailean Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari, Herri Erakundeek beraien Aurrekontuak prestatzerakoan gure beharrezkoak ere kontutan har ditzaten.

Bide beretik, Madriderako "Ministerio de Educación y Ciencia" eta "Ministerio de Cultura" direlakoetara ere ikustaldiak egiteko aukera izan dute gure Batzordekideek.

Urrats berriak bilatuz, Maiatzaren 20an Madridentan egin den Akademi arteko bilkuran, gure Diruzainaren eskaria onartu da, Erakunde Publikoengandik dirulaguntza oparagoak lortu ahal izateko, Erakundearen arteko harremanak hestutzea eta koordinatzea.

Euskaltzaindiak, Batzordearen proposamenez, Langileen alo-gerak Eusko Jaurlaritzakoekin parekatzea onartu du, eta hildo beretik, esleipen, dieta eta bestelako ordainketa-taula ere.

Azken urteotan hainbat kezka eta buruhauste sortu digun beste arazo batek ere izan du konponketarik aurten, gure argitalpenak ondo eta egoki zaintzeko behar genuen gordailu bat hain zuzen. Zorionez, aurkitu dugu Etxebarrin, 875 metro karratu dituen toki eder eta eroso.

Ekainean jaso du Euskaltzaindiak ustegabeko albistea, Madriden egindako hilburuko batetan, Euskaltzaindia partaide agertzen da, SEBERETXE izeneko torrétxearen jabegoan. Jauregi zahar hau Bilboko Buia auzoan dago.

Azkenik, Abenduaren 31an Batzordekide zintzo eta langile izan dugun Xabier Gereño jauna erretiratu egin zaigu. Badakigu, ongi jakin ere, lanari ez diola utzi eta oraindik haren luma edo idazmakinatik nobela irakurgarri asko aterako direla ziur gaude. Bioakio lerro hauetan gure eskerrona.

1985 URTEKO BALANTZEA


S A R R E R A K

Diputazioek.....	30.500.000,--
Eusko Jaurlaritzak.....	25.000.000,--
Estatuko Ministeritzek.....	12.000.000,--
Udalek.....	2.041.500,--
Banku eta Aurrezki Kutxek.....	1.033.500,--
Salmentek.....	7.214.476,--
Partikularrek.....	3.792.338,--
Bestelakoek.....	<u>283.025,--</u>
	81.864.839,--

I R T E E R A K

Euskaltzainburugoaren asignazio eta dietak....	3.775.020,--
Batzorde eta bileretako gastuak.....	8.162.949,--
Langilegoaren soldatak.....	26.722.424,--
Gizarte Segurantzak.....	8.465.297,--
Funtzionamendu gastuak.....	12.620.197,--
Erosketak.....	3.864.866,--
EUSKERA agerkaria eta Oroit-Idazkia.....	4.125.050,--
Azkue Biblioteka.....	2.161.123,--
Erakusketa eta Azokak.....	842.901,--
Gordailua.....	7.755.008,--
Bestelakoak.....	165.256,--
Banku eta Aurrezki Kutxak.....	<u>3.204.748,--</u>
	81.864.839,--

1. EKINTZA OROKORRAK



1.1. BILKURA ETA AKADEMI BILERAK

Euskaltzaindiak bere hileroko batzar arruntak 1986 urtean era honetara egin ditu, hots, Gipuzkoako Foru Diputazioan, sei; Bilboko Plaza Barriko Egoitzan, bat; Durangaldeko Matienako "Hostal San Blas"en, bat; Lapurdin, Hazparneko Herriko Etxean, bat; Zuberoan, Barkoxeko Herriko Etxean, bat; Nafarroa Garaian, Lekunberriko "Hotel Ayestaran"en, bat.

Ohizko bilkurez gainera, urtean zehar zenbait mendeurren eta gertakari ospatu ditu batzar ireki eta Jardunaldiak antolatuz:

- Apirilaren 3, 4 eta 5ean, I. **Toponimia Jardunaldiak**, Gasteizko "Hotel Canciller Ayala"n. Horren berri Onomastika Batzordearen atalean ikus daiteke.

- Maiatzaren 30 eta 31n, Durangoko Euskal Jai ospetsuen oroimenez, besteak beste, bertan Euskal Akademia baten proiektua aurkeztu bai zen 1886an, Euskaltzaindiak, Uriko Eskoletan, **Ebakerari buruzko II. Jardunaldiak** antolatu ditu. Zehaztasun akademikoak 2.5. sailean doaz.

- Ekainaren 26, 27 eta 28an, Lapurdin bi gertakari antolatu ditu Euskaltzaindiak. Lehen egun bietan, **Lexikologi Erizpideen Finkapenerako III. Jardunaldiak**, Belokeko Abatetxean eta hirugarrenean, Hazparne bere sorterrian, Piarres Charritton euskaltzain oso berriaren sarrerako batzar irekia.

- Uztailean Zuberoara joan da Euskaltzaindia, hain zuzen, Barkoxen, Pierre Topet "Etxahun"en bigarren mendeurrena ospatzen zelako. Herriko Etxean batzarra eginaz gainera, "Etxahun" koblakaria izeneko Pastoralaren emankizunean gomitatua izan da, Eus-

kaltzainburuak eta Jean Louis Davant euskaltzainak, amaieran parte harturik. Ospakizun honen ondoren, Azaroko hileroko batzarrean Jon Etxaide euskaltzain urgazleak **"Etxahun sortzearen II. mendeurrena dela eta"** izeneko txosten jakingarri bat irakurri du.

- Urriaren 24 eta 25ean, Larraun ibarreko Lekunberrin bi gertakari eratu dira. **Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikokoaren Jardunaldiak** eta Euskaltzaindiko hiru kaputxino ospetsuen mendeurrenkari batzar irekia: A. Damaso Intza, Araitz ibarrekoa; A. Buenaventura Oieregi, Bertizaranako eta A. Jose Antonio Donostia.

1.2. EKINTZA ORDEZKAGARRIAK

Zuzendaritzak eta Erakundeko beste kargudun edo kide batzuk 1986an, ekintza, ikustaldi eta ospakizun hauetan hartu dute parte, Euskaltzaindia ordezkatzuz:

- Urtarrilaren 7an, M^a Karmen Garmendia Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkariarekin biltzen da Zuzendaritza, Euskaltzaindiaren lan-programa eta aurrekontuak tratatzeko.

- Hilabete berean, 30ean, Jose M^a Makua Bizkaiko Diputatu Nagusiarekin ikustaldia, Plaza Barriko Egoitza berriaren obrak bultzatzeaz.

- Jose M^a Satrustegik, A. Damaso Intza euskaltzain ezin-duari bisita egiten dio, bere ehun urteburuaren omenaldia iragarriaz.

- Hil bereko batzarrean, Pello Salaburu euskaltzaina Euskal Kulturaren Kontseilu Orokorreko partaide izendatzen da.

- Batzar berberean, Begoña Landaburu andereak bere aita zenaren, Angel Larroquek egindako, margo-irudi bat erregalatzen dio Euskaltzaindiari. Felix Landaburu, Bizkaiko Diputazioko Diputatu zelarik, Euskaltzaindia sortzea ofizialki proposatu zuen, Kosme Elgezabalekin batera.

- Otsailaren batzarrean Emile Larre euskaltzaina, Sarako "Syndicat d'Initiative" delakoak antolaturiko Euskal Idazleen III. Biltzarrerako ordezkari izendatzen da.

- Martxoan, Bertsolari Txapelketarako Euskaltzaindiaren trofeoa ematea erabaki da, Jean Haritschelhar buru-ordea txapel-dunari saria emateko izendatzen delarik. Honen ezinean, Juan San Martin Jagon Sailburua.

- Nafarroako EGA tituluak emateko, Juan Jose Zearreta epaimahaikide izendatzea onartzen da.

- Apirilean, Eusko Jaurlaritzak, Foru Diputazioekin batera, bide seinalizapenentarako batzorde ofizial bat sortzen du eta bertarako, hileroko batzarrean, Endrike Knörr eta Jose Luis Lizundia Onomastika buru eta idazkaria izendatzen dira ordezkari.

- 23an, Erregeak urtero kultur munduko Erakunde eta jakintsuentzat eratzen duen harremanezko batzarrerara, Jose M^a Satrusegi, Idazkaria; Endrike Knörr, Diruzaina eta Juan San Martin, Jagon Sailburua.

- Maiatzean, Deustuko Unibertsitatearen mendeurrena dela eta, Euskaltzaindiari partaidetza akademikoa ordezkatzeko zaio.

- HABEko azterketa baterako epaimahaikide, Juan Luis Goikoetxea izendatzen da eta ordezkoko, Jazinto Fernandez Setien.

- Ekainean, Julio Caro Baroja Espainiako Erret Akademian sartzean, Juan San Martin Jagon Sailburuak ordezkatu du Euskaltzaindia.

- Uztailaren 13an, Ojakastron, Errioxako Adiskideen Elkar-teak eta Errioxako Diputazio Orokorak antolaturiko Juan Bautis-ta Merino Urrutia euskaltzain ohorezko zenaren mendeurren ospa-kizunean Euskaltzaindiak parte hartu du, Alfonso Irigoyen, Juan San Martin, Jose Antonio Arana eta Jose Luis Lizundia ordezkari bezala agerturik.

- Barcelonako Olinpiar Jolasen Ohorezko Komiterako partai-detza eskatu dio Euskaltzaindiari Pasqual Maragall hiri haretako Alkateak. Jose M^a Satrustegi izendatzen da.

- Abuztuaren 12an, M^a Karmen Garmendia Jaurlaritzako Hiz-kuntz Politikarako Idazkaria eta Mikel Zalbide Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuburuarekin, lan-bilera bat egiten du Euskal-tzaindiko Buruzagitzak.

- Irailean, "Institut für Niederdeutsche Sprache" elkargoak Bremen hirian antolatutako symposiumerako gomita jaso da, Fede-rico Krutwig inbitatu da bertara joateko.

- Euskararen batasunari buruz atzerriko soziolinguistentzat lan bat prestatu du Euskaltzainburuak, Hizkuntz Politikarako Idazkariak eskatua.

- Urrian, Administrazio eta Lege Arloko Itzultzaile Eskola sortu du Jaurlaritzako IVAP/HAEE delakoak, bere Kontseiluan Euskaltzaindiak batzordekide bat izango duelarik. Jose Luis Lizundia Idazkari-ordea izendatzen da ordezkari.

- 29an, HABEren **AURTEN BAI** programaren aurkezpenera, Jose Luis Lizundia Idazkari-ordea joan da Zuzendaritzaren ordezkari.

- Azaroan, Estatuko Unibertsitateen Kontseiluko lan-talde bat sortzen da, Euskaltzaindiari partaide bat eskatzen diotelarik. Alfonso Irigoyen izendatzen da ordezkari.

- Balendin Enbeita euskaltzain ohorezkoaren ehorzketetan, Jose Antonio Arana, Jose M^a Aranalde eta Juan Jose Zearreta euskaltzain urgazleak eraman dute Akademiaren ordezkaritza. Hileroko batzarrean Jose Antonio Aranak eman du hilberri txostena.

- Abenduaren 16an, Gobernuko Hizkuntz Politikarako Idazkari den M^a Karmen Garmendia anderearekin izan du Zuzendaritzak lanbilera bat.

- Juan San Martin Jagon Sailburua den legez, Euskaltzaindiaren ordezkaria da HABE Patronatoan. Beraz, Erakunde horren zenbait bilkuretan parte hartu du.

- Euskaltzaindiak bere ordezkari zuzen den Jean Haritschellar eta beste zenbait euskaltzain oso eta urgazleren bidez, Euskararen Aholku Kontseiluan, urtean zehar, egin diren bileretan parte hartu du.

1.3. ZENBAIT EKINTZA ETA GERTAKARI AKADEMIKOREN AIPAMENA

- NATOren erreferndum txartelak erdaraz bakarrik izango direla eta, Euskaltzaindiak Adierazpen bat bidali dio Gobernu Zentralari, euskaraz ere bozkatzeko eskubidea eskatuaz.

- II. Mundu Biltzarraren berri eman dio Jose Ramon Uriarte jaunak Euskaltzaindiari Apirileko hileroko batzarrean.

- Rudolf de Rijk euskaltzain urgazleak holanderaz egin duen euskal gramatikari buruz, Euskaltzaindia ingelesezko argitalpena bideratzeko prest dagoelarik, Euskal Herriko Unibertsitateak koedizioa onartuko balu.

- Maiatzeko batzarrean, Hauteskunde Orokorrak direla bide, bozketa txartelak euskaraz ematea eragozteagatik, Hautesbatzar Nagusiari gaitzespena agertzea erabaki da.

- Akademi bilkura berberean, Bilboko Lurralde Audientziak sumario oso baten itzulpena eskatzen duelarik, Justizia Administrazioari alderdi judizial bakoitzean itzulpen zerbitzu batzuk sortzea eskatu zaio.

- Zuzendaritzako kargu berritzea bozkatu da Abenduko batzarrean. Luis Villasante, Euskaltzainburu; Jean Haritschelhar, buru-orde; Jose M^a Satrustegi, Idazkari eta Juan San Martin, Diruzain hautatu dira.

- A. Damaso Intza euskaltzain zenaren hutsartea adierazten da Iraileko batzarrean eta Juan Apezetxea eta Patxi Zabaleta aurkezten dituzte hautagai, baina, Abenduko batzarrean ez du inork ere gehiengo osorik lortu. Berriz irekitzen da aurkezpenerako epea.

2. IKER SAILEKO BATZORDEAK

2.1. HIZTEGIGINTZA BATZORDEA

Bere garaian finkaturiko lan-programaren arabera hiru eremu nagusitan banatu dira, 1986an zehar, Hiztegegintza Batzordearen lanak:

- a) OEH: Orotariko Euskal Hiztegia
- b) LEF: Lexikologi Erizpideen Finkapena, eta
- d) EEBS: Egungo euskararen Bilketa-lan Sistema-tikoa.

Alor-eremu bakoitzean azken hamabi hilabetekoan esan-eginen laburbilpena eskaintzen da ondoren.

I. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)

Orotariko Euskal Hiztegiak denaz bezainbatean aski mugatua izan da, 1986an ere, batzordeak berariaz izandako jarduna: Hiztegi horren prestakuntza Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapeko lantaldeak eraman du aurrera, Ibon Sarasola bertako arduradun eragile delarik. Eta batzordeak, ondorioz, puntu jakin batzutan bakarrik eskaini du bere partaidetasun eta laguntza: OEHren argitalpen-bideak prestatzeko orduan, batetik, eta bestetik OEHren kostu-iraupenen inguruko berrazterketa-aldian.

a) OEHren argitalpen-bideak: Orotariko Euskal Hiztegiaren lehen alea laster bukatzeko dela-eta, hainbat pauso eman dira 1986an, Ekain-Uztailetan bereziki, bere argitalpen-bideak segurtatzeko. Ekintza horien artean aipagarriak dira, batez ere, honako hauek: Euskal Administrazioarekin, lehenik, OEHren argitalpen-bidez iritsitako oinarritzko adostasuna; eta bestetik, argitalpena zein etxeri egotzi erabakitzeko emandako pausuak: deialdi irekizko jakinerazpena, jasotako eskaeren azterketa, argibide gehigarrietarako luzapena, eta azkenik, argitalpen-eskubidedun etxea erabaki izana.

b) OEHren kostu-iraupenen berrazterketa: Orotariko Euskal Hiztegia kostuz eta iraupenez hasieran begiz jotako neurrietatik aldentzen ari zela ikusirik, eta Euskal Adminis-
trazioak egindako adierazpenak kontutan hartuz, hainbat pauso eman dira 1986ko azken hiruzpalau hilabetean gertaera horri aurre egin eta, ahal den heinean, konponbide zentzuzkoa aurkitzeko.

II. Lexikologi Erizpideen Finkapena (LEF)

Abiada urtea izan da 1986koa, bete-betean izan ere, LEF programarentzat. Hauek izan dira, labur bilduz, hamabi hilabetealdi honetako ekintzak:

a) Osoko lantaldearen eraketa.

20 bat lagunez osatu da, beharrezko eskaintza-onespenak eta gainerako ihardupideak burutu ondoan, LEF batzordea.

b) Lantalde eragilearen eraketa.

Osoko batzorde horretatik bost laguneko lantalde eragilea aukeratu da, Miren Azkarate lehen arduradun delarik eta Mikel Zalbide ordezkari.

Ia hilero bildu da LEF programaren talde eragilea. Bere lan-jardunak honako xede nagusiok izan ditu 1986an:

. batzorde osoa lanean jartzea: partez bakarrik lortu da xede hori.

. 1986rako 2 jardunaldiak prestatzea: ondo bete da, gero azalduko denez, helburu hau.

. Handik aurrerako lan-egitaraua prestatzea: hau ere ongi kunplitu da; eta, azkenik

. lexikologi erizpideen inguruko azterlana bideratzea: hau ere neurri on batean mamitzen hasia da, jardunaldietara aurkezturiko txostenak lekuko.

Lau eginbehar horietatik agirikoena Jardunaldien eraketa izan da. Horrela, Maileguzko hitzei buruz lehen egindako bi jardunaldien ondoren III. Jardunaldia egin da Beloken, 1986ko Ekainean, aztergai nagusi hitz-elkarketa eta sailkapen-bide bat aurkeztu eta eztabaidatu ahal izan delarik. Laugarren Jardunaldia, Abenduan Plentzian egiteko izan dena, hilabete atzeratu da.

III. Eguno Euskararen Bilketa-lan Sistematika (EEBS)

Euskararen lexiko-berrikuntzaren inguruan dauden beharrak eta eritzi-desberdintasunak kontuan izanik bilketa-lan sistematikoa bat bideratzeko lan-molde egokiena zein izan daitekeen aztertzea izan da, Hiztegi-gintza Batzordearen 1986an asmo nagusia. Horretarako, eta Euskaltzaindiaren onespenez espre-sua jaso ondoren, berariazko gogoeta-jardunaldia eratu da 1986an, Larraun-Lekunberrin. Hiztegi-gintza Batzorde buruak, buru-ordeak eta idazkariak mintzaldi edo txosten bana eskaini dute lexiko-berrikuntza dela eta, eskuartean leudekeen eginbehar, arrisku, jokamolde eta abarrez. Jardunaldi horren emaitza gisa batzordeño bat eratu da, batetik, aurrerantzean EEBS programa nondik nora bideratu behar litzatekeen xehetasunez aztertu eta Euskaltzaindiaren proposamen-modukoa aurkezteko; eta, bestetik, Jardunaldi hartako partaide bati hizkuntzaren berrikuntza-lanak direla eta mundu zabalean hartu ohi diren neurrien berri emango zukeen txosten bat prestatzeko agindua eman zaio.

Mandatu biak garaiz bete dira. Mundu zabaleko berrien txostena Abenduan aurkeztu da Euskaltzaindian. Batzordeñoak, bestalde, Azaroan aurkeztu zuen bere proposamen-txostena. Beharrezko azterketa-aukera eskaini ondoan Euskaltzaindiak bigarren aldiz aztertuko du, 1987ko Urtarrilean, txosten hori eta, beharrezko aldaketak egin ondoan, onartu.

Sail honetan koka daitezke jarraian aipatzen diren txostenok:

- Martxoan irakurritako L. Roberto Gonzalez jaunarena **"Ezkondur"** hitzaren etimologiaz.
- Pakita Arregi euskaltzain urgazle andereak, Apirileko batzarrean, **"Umeen ahozko produkzioaz zenbait ikuspegi"** izenekoak.
- Irailean **"Orotariko Euskal Hiztegiaren inguruko lanak zertan diren"** izenekoak, Koldo Mitxelena Hiztegi-gintza Batzorde-buruak.

2.2. GRAMATIKA BATZORDEA

1. Lan prozedura. 1986ko lana batez ere aditzaren inguruan ibili da. Lehendik egina zegoen eskema hura zehaztu ondoren, eskema horretako atal bakoitza batzordekideen artean banatu da. Hauek lehen idatzia prestatu dute eta mahaira ekarri eztabaidatzeko. Ondoren berridatzi egin behar izan dira eta berriro eztabaidatu azken "orraztaileen" eskuetan jarri aurretik. Dena den, joan den Maiatzaren erdialderako lana aski borobildua izango zela uste izan arren atzeratu egin da. Baina esan behar da aurkeztu diren txosten guztiei orraztu onak eman dizkiola Batzordeak. Zenbait, guztiz aldatu beharra izan da, ustez egin nahi litzatekeen gramatika motari ongi egokitzen ez zitzaiola-koan.

2. Bilerak. Guztira, 1986. urte horretan hogeitabat lanbilera arrunt egin dira, ostiral goiz eta arratsaldeak hartuz.

Horrezaz gainera, Uztailearen 3, 4 eta 5ean Jardunaldi bereziak egin ditu Durangaldeko Matienan.

3. Txostenak. Aurkeztu eta eztabaidatu diren txostenei buruz, hona hemen txosten horien izenburuak eta egileen izenak:

1. Aditz motak (Miren Azkaratek aurkeztua).
2. Aditz forma ez jokatuak (Beñat Oyharçabalek).
3. Aditzaren jokabidea (Pello Salaburu eta Patxi Goenagak).
Baldintzazko adizjokoa, gai honen barruan sartzen delarik, Lino Akesolo eta Patxi Goenagaren artean prestatu dute.
Agintekera (Andolin Eguzkitzak).
4. Laguntzailearen paradigmak (M^a Pilar Lasartek).
5. Adizki jokatuaren erabilera (Alan Kingek). Lan hau, berez aski korapilatsua izaki, eztabaidagarria gertatu da Uztaileko Jardunaldietan eta berridazte lan gogorra ezarri behar izan zaio egileari, gramatikari eman nahi zaion mailari egokitzeko.
6. Aldien egokiera (Karmele Rotaetxek).
7. Egitura perifrastiko zenbait (Jose M^a Larrartek).
8. Aditz multzoko beste elementuak (Jose Antonio Mujikak).

Aditz arlotik kanpo, aurreko lanean, Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak (EGLU), alegia, izan zuten baino arreta eta sakontasun handiagoa behar zutelakoan, beste bi gai ere aztertu dira 1986ko bileretan: a) Hitz ordena (Beñat Oyharçabalek aurkeztua) eta b) (e)KO atzizkiak (Jose M^a Larrartek).

4. Informatikaz baliatzea dela eta. Azkenik, Batzordearen lan asmoak aurrera eramateko Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartekoan (EJIE) laguntzaz lortu nahi ziren informatika baliabideak direla eta zenbait lan-bilera eta saio ere egin dira ikusteko zernolako etekina eman dezakeen informatika kontu honek, batez ere 1987ko Gramatika lanei begira.

Eremu honen inguruko gaiez txosten hauek eman dira, hilero-ko zenbait batzar arruntetan:

- Otsailean, Koldo Mitxelena euskaltzainak **"Deklinabidearen eta eratorbidearen artean"** izenekoa.

- Martxoan, Alfonso Irigoyen euskaltzainak **"Bizidun zentzuzko izen sintagmak eta -KO genitibo nominalizatzailea"**.

2.3. DIALEKTOLOGIA BATZORDEA

EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA (EHHA)

1986. urtea oparo eta emankorra izan da atlasgintza arloan. Orainarte sekula eman ez diren urratsak eman dira urte honetan. Laburbilduz lau ardatz nagusitan bil daitezke joan den urtean egindako lanak:

Atlasgintza asmo eta lanen berregituraketa osoa. Eskuarteko proiektuaren zehazpena. Hirugarrenik, proiektuan azaltzen den lantaldearen osaketa. Eta inkestagintzaren aurrerakada.

2.3.1. Planen berregituraketa osoa

1985.eko Urtarrilean Gasteizen ospatu ziren **V. Dialektologia Jardunaldietan** atlasgintza lanak atalez atal burutzea erabaki zen.

Erabaki hura jarraituz **1. ATALA** deitua izan zena prestatu eta inkestak egiten hasi da Batzordea urtearen hondarretan.

Baina 1986. urte hasieran proiektuaren finkapena dela eta egin diren bilera batzuren ondoren, hartutako bidea bertan behera uztea erabaki da eta Okzitaniako Tolosako Unibertsitatean irakasle den Xabier Ravierren aholkua jarraituz atlasgintza-pausuak bideratzeko era tradizionalera jo da; hau da, lehenik galdekizun osoa gertatu, inkesta guztiak jaso eta transkribatu, eta ondoren burutu datu-tratamendu eta kartografia lanak. Honek lan-filosofia osoa aldatzea suposatu du.

Aipatu lan-bilerotan egindako denbora kalkuluetara egokitzeko galdekizun osoa berregituratu egin da eta inkestagintzan hasteko prest utzi, behar izan dituen perifrasi, irudi-argazki eta ezezko datu guztiekin hornituz.

2.3.2. EHHA proiektuaren finkapena

Atlasgintza lanetan hasitakoan ez zen proiektu osoaren azterketa zehatzik egin.

Euskaltzaindiak Euskal Herriko Atlasa egitea erabaki zuenean Batzorde Teknikoa osatu zuen lan horiek bideratzeko. Batzordea abiadan jarri zenean atlasgintza lanetan ematen den lehen pausoarekin egin zuen topo: galdekizunarekin. Eta zeregin horri lotu zitzaion burutu arte. Pauso hau burutzean bigarrenari ekin dio: inkestagintzari, ondorengo arazoan sakonketa gero-rako utziz.

Herri Aginteak, ordea, programa honek sortzen dituen diru arazoak bere gain hartzeko proiektu zehatza eskatu du, non proiektuaren organigrama, giza-baliabideak, epealdi eta kronograma, eta dirubideak eskatzen direlarik.

Proiektua Uztailaren hasieran aurkeztu da eta Eusko Jaurlaritzaren onarpena jaso.

Oraindik CNRSren partaidetza eta beste zenbait puntu zehaztu gabe badaude ere, esan liteke proiektuak diru-iturriak ziurtatuta dituela.

2.3.3. Lantaldearen osaketa

Hasiera-hasieratik argi ikusi da proiektu honek zenbait unetan Batzorde Teknikokideez gain beste pertsona batzuren beharrezana izango zuela, eta batez ere inkestagintza garaian.

Hori dela eta Euskaltzaindiak inkestagintzarako beste hiru kide kontratatzea erabaki du. Hauez kanpo informatikalari bat ere badu lantaldeak, datuak informatizatzeko prestakuntza lanak burutzen.

Urtearen amaieran, lantaldea honela gelditu da: Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain Zuzendaritza Teknikoan; inkestagile-taldean Jose M^a Etxebarria eta Ana M^a Echaide (Unibertsitateak uzten dizkien orduetan), eta Isaac Atutxa, Izaskun Etxebeste eta Koro Segurola dedikazio osoz. Informatika lanetan Iñaki Ibarra.

2.3.4. Inkestak

1985.eko Irailean hasi ziren inkestak burutzen (galdekizuneko 1. ATALA). Urte honen hasieran lantalde osoa hasi da inkestagintzan, baina proiektu osoaren zehazpenaren premina azaldutakoan Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgainek inkestagintza lanak utzi egin dituzte, Jose M^a Etxebarria eta Ana M^a Echaidek jarraitzen duten bitartean.

1986. urtearen amaieran honako egoeran aurkitzen da inkestagintza arloa, herriz herri.

Bizkaia	Dima (1.17)	inkesta transk.	⊗				
	Lemoa (1.16)	inkesta transk.	⊗				
	Gamiz-Fika (1.13)	inkesta transk.	⊗				
	Larrabetzu (1.14)	inkesta transk.	⊗				
	Ondarroa (1. 36)	inkesta transk.	⊗				
	Mungia (1.10)	inkesta transk.	⊗				
	Etxebarri (1.7)	inkesta transk.	⊗				
	Zollo (1.3)	inkesta transk.	⊗				
	Zeanuri (1.18)	inkesta transk.	x				
	Gipuzkoa	Araotz (3.4)	inkesta transk.	⊗			
Oñati (3.5)		inkesta transk.	⊗				
Bergara (3.6)		inkesta transk.	⊗				
Orio (3.23)		inkesta transk.		⊗			
Getaria (3.17)		inkesta transk.		⊗			
Legazpia (3.12)		inkesta transk.		⊗			
Donostia (3.28)		inkesta transk.		⊗			
Lasarte (3.29)		inkesta transk.		⊗			
Hernani (Epele)(3.33)		inkesta transk.		⊗			
Hondarribia (3.36)		inkesta transk.		⊗			
Ikaztegieta (3.25)		inkesta transk.		x			
Nafarroa		Zilbeti (4.23)	inkesta transk.				⊗
		Mezkiriz (Ureta)(4.24)	inkesta transk.				⊗
	Bera	inkesta transk.		x			
	Urdiain (4.1)	inkesta transk.				⊗	
	Arbizu (4.2)	inkesta transk.				⊗	
	Zugarramurdi (4.20)	inkesta transk.				⊗	
	Abaurregaina (4.26)	inkesta transk.				⊗	
	Eugi (4.21)	inkesta transk.				x	
	Eaurta (4.27)	inkesta transk.				x	
	Alkoz (4.17)	inkesta transk.				x	
	Etxaleku (4.12)	inkesta transk.				x	
	Lapurdi	Askaine (5.3)	inkesta transk.				⊗
Mugerre (5.9)		inkesta transk.				⊗	
Nafarroa Beherea	Baigorri (6.3)	inkesta transk.				⊗	
	Jutsi (6.16)	inkesta transk.				⊗	
Zuberoa	Larrañe (7.5)	inkesta transk.				⊗	
	Santa Grazi (7.9)	inkesta transk.				⊗	
	Urrüxtoi (7.10)	inkesta transk.				⊗	
	Eskiula (7.12)	inkesta transk.				⊗	

2.4. ONOMASTIKA BATZORDEA

1986 urtean, jakina denez, I. **Toponimia Jardunaldiak** egin dira Gasteizen. Esan behar da gure esperantzak osoki bete direla ospakizun honekin: hizlariak txosten jakingarriak eskaini dituzte, elkarrizketa mamitsuak gertatu dira, eta entzuleen artean nabari izan da interes bizia. Osagarri, baina osagarri guztiz ederra, Mapagintza erakusketa. Hau ere lehenbizikoz egin da, oso maila bikaina iritsiz.

Apirilak 3, 4 eta 5ean egin ziren I. **Toponimia Jardunaldiak**, Euskaltzaindiak antolatuak, Eusko Jaurlaritzaren babespean.

Euskal Herriko hizlariak ez ezik, kanpoko zenbait ere deitzea erabaki zuen Batzordeak, horretarako arrazoin frango zuelarik. Ezin ahantz daiteke harreman estuak dituztela gure lekuizenek inguruko hizkuntzekin (biziekin eta hildakoekin). Halaber, onuragarria gertatu da gure iduriz, kanpoko esperientziak ezagutzea, Katalunian eta Galizian oroz gain.

Programan agertzen ziren 18 hizlarietatik, 17k, Julio Caro Barojak ezik, eman dute bakoitzak bere txostena. Caro Barojak, hala eta guztiz ere, gero, bidali du bere lana, elkarrizketa eta eztabaida interesgarriak izanik ondoren.

100 lagun matrikulatu ziren Jardunaldietara, beraz, hizlari, euskaltzain, gomitatu eta antolatzaileak kontutan izanik, 130 lagunetik gora bilduz. Entzule-partaideen artean, Legebiltzarreko eta Jaurlaritzako zenbait teknikari eta funtzionari; Nafarroako Foru Diputazio eta Gobernuko, beste Foru Diputazioetakoak ere bai; udal askotako euskal itzultzaile edo euskararen zerbitzu arduradunak; "Instituto Geográfico Nacional"eko 3 teknikari; Asturiasko Printzerriko Hezkuntz Kontseilaritzako funtzionari bat; Errioxako Trebiana eta Ezkaraiko udal idazkaria; Euskal Herri, Deustu, Nafarroa, Sevilla eta Burgosko Unibertsitateetako irakasle eta ikasleek osatu dute, seguru asko, talderik handiena.

Onomastika Batzordea atzerriko Jardunaldi interesgarri bitan izan da. Martxoaren 21, 22 eta 23an, Endrike Knörr Batzordeburua eta Jose Luis Lizundia Batzorde Idazkaria Menorcako irlan izan dira, bertan antolatu baitu "Societat d'Onomàstica"k bere "XI Col.loqui d'Onomàstica catalana".

Irailean Jean Baptiste Orpustan Batzordekidea eta Jose Luis Lizundia Batzorde Idazkaria, Gaskoinako Armanhac eskualdean dagoen Flaran abatetxean izan dira, bertan egin bai dira, gai monografiko honekin: "Toponymie et Défrichements en Europe Occidentale et Centrale" Nazioarteko VIII. Egunak.

Bi Jardunaldi hauetan izateak Europako beste toponimi ikerleen ezagutza eta harremanak sendotzeko bide aproposak gertatu dira Euskaltzaindiaren batzorde honentzat.

Ohizko lanei jarraituz udalen euskal izenak ofizialtzeari buruz, herri hauetako erizpen argibideak eman dira: Arakaldo, Laukiz, Maeztu-Arraia, Orexa, Atarrabia-Billaba, Elantxobe eta Markin-etxebarri.

Bestalde, herrietako auzo, kale eta toponomastika galdera hauek erantzun dira: Baños de Ebro/Mainueta, Aramaio, Plentzia eta Gorlizko Gandia, Gasteizko Hirizaharra, etab.

Bizkaiko Foru Diputazioaren Errepide Zuzendaritzak eskaturik, "Mapa de Aforos de Vizcaya" zuzendu da. Nafarroako Foru Diputazio edo Gobernutik igorritako zenbait kontsulta erantzun dira.

Euskal Irrati Telebistako zuzendari eta euskara arazoetako aholkulariari zenbait argibide eman zaizkio, herri izen eta jentilizioak gaizki erabiltzeaz. Baita ere Bilbo-Baiona autobi-

deko "Europistas" enpresari emandako erizpidei esker Aritzeta toki izena aldatu da Usurbil partean.

Baita ere, eta urteetako lanari jarraiturik, pertsona ize- nei buruzko erizpenak eman dira: Juzgaduetako itzulpen agiriak; izenen jatorria eta historiaz. Deiturei buruzko zenbait kontsul- tari erantzun zaie.

Lekarotzen onartu zen **Onomasticon Vasconiae** liburu sorta berriak, dakizuen bezala, bere lehen zenbakia plazaratu du Toponimia de la Cuenca de Pamplona, Cendea de Cizur, Jose M^a Jimeno Jurio- rena.

Irailean Eusko Jaurlaritzan, Lakuan, aurkeztu da Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak/Relación de las pobla- ciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco, Batzorde honek prestaturikoa, eta Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkari- tzak argitaratua.

Iraileko hileroko batzarrean batzordekide berri hauek izendatu dira: Jose Antonio Gonzalez, arabarra; Eugène Gohene- txe, lapurtarra; Jean Baptiste Orpustan, baxenabartarra eta Jose M^a Jimeno Jurio eta Ricardo Zierbide, nafarrak.

2.5. EUSKAL EBAKERAZ II. JARDUNALDIAK

Maiatzaren 30 eta 31n egin dira Durangon, bertako Euskal jaien mendeurrena dela eta, **Euskal Ebakerari buruzko II. Jardunaldiak**, aurrekoak, Azkoitian izan ziren 1982.eko Ekainaren 11 eta 12an.

Jardunaldi hauen helburua euskal azentuari buruz argibide bat ematea izan da, batez ere telebista eta irrati-tan horren beharrezana ikusi delako. Hain zuzen, Durangon egonik Euskal Irrati eta Telebista, bidezkoa zirudien Jardunaldi hauetarako, gai honekin, Euskaltzaindiak bertan antolatzea.


Ander Salabarreria Durangoko Alkateak eta Euskaltzainburuak ireki zituzten Jardunaldiak.

Txostengile eta gaiak hauek izan ziren: Luis Mitxelena, **"Uste eta iritzi euskal azentu mota batez"**; Karmele Rotaetxe, **"Azentu eta entonazioaz harremanak"**; Jose Luis Alvarez **"Txillar-degi"**, **"Azentu batuari buruz proposamen bat"**; Francesc Vallverdú, **"Reajuste/creación del standard oral"**. Komunikazioak: Patxi Altuna, **"Azpeitiko euskal ebakera"**; Alfonso Irigoyen, **"Hizkuntzaren normalizazioa, kontzientzia linguistikoa eta euskal ebakerak"**; Lourdes Oñederra, **"Ebakera eta erregistroak"**; Juan Manuel Etxebarria, **"Idazkera eta ebakeraren ezberdintasunak"**; Jose Basterretxea **"Oskillaso"**, **"Histéresis fonética vasca"**.

Zenbait grabaketan entzute-ikerketak, euskalki guztietakoak, izan dira Jardunaldi hauen beste alderdi praktikoa.

Bai txosten, komunikazio eta grabaketak eztabaida franko sorarazi zuten. Azken puntu bezala Adierazpen bat onartu zuen Euskaltzaindiak, Jardunaldien amaieran irakurri zena.

3. J A G O N S A I L E K O B A T Z O R D E A K



3.1. LITERATURA BATZORDEA

Batzorde hau Euskal Idazleen Elkarteak sortzen saiatu ondoren, Lekarozko IV. Barne Jardunaldietan, 1985ean, Federico Krutwig buru zelarik bere egitekoa berriztatu eta apailatu zuen.

Batzorde honek euskal literatura klasikoa estudiatu du, ondoren helburu hauetara saiatuz:

- euskal estilistika prosa nola finkatzen den.
- euskal retorika bati buruzko testu baten idaztea.

Batzordeburuak lan batzuk aurkeztu ditu eta horren fruitu izanik **Prolegomena** izenaz EUSKERA agerkarian agertutako txostena. Baita ere beste lantxo batzuk aditzaren aspektuari buruz eta aoristoaz.

Axularren **GERO** aztertu du batzordeak, literatur hizkuntza normalizatua finkatzeko eta estilistikaren nibel glotologikoa ikertzeko.

Leizarraga Beraskoizkoaren **Testamentu Berria** ere ikertu du, euskara burgesaren nibelaren basea izan zitekelako.

Hizkuntzazko nibelak (niveaux de langage) edo hizkerak

Batzordea lan hau egiten diharduela konstatatu du euskaran hizkuntzazko nibelak oso gutxi garatu direla. Bilkuretan aztertu da europar hizkuntzetan hizkuntzazko nibelak nola sortu diren.

Horretarako Batzordeak erabaki du grekoaren estudioak bultzatzea eta erakunde kultural bat apailatzea JAKINTZA BAITHA izenekoa hain zuzen. Erroman ere antzerako elkarte bat sortu dute bertako Unibertsitatean.

Estilistikari buruzko testuaren idazteko lehen kontatazioak

Axularren GERO eta Leizarragaren testoak ikertze eta konparatzearekin, euskararen syntaxian dauden tipoak ikusi dira, baita horretaz Karl Boudak zioena ere.

Aoristoaren enplegua euskaran aztertu da, prezeski, orain arte Bizkaiko eskualde batzuetan bizirik bai dirau.

Batzordearen beste lan batzuk

Batzorde bilkuretan tratatu izan diren gaiak eraginik, Alfonso Irigoyen buru-ordeak, liburuxka bat argitaratu du: En torno a la evolución y desarrollo del sistema verbal vasco. Batzordekide berak beste txosten bat ere aurkeztu du: "Lengua, sociedad humana, literatura, creación".

Manu Erzilla Batzorde idazkariak Euskal Herriko kazetari-tzaren hizkuntza nibela tratatu du. Jesus Lavin Campo Batzordekideak hiru lan aurkeztu ditu: Axularri buruz, "Euskararen ego-**ker**a eta laburdura klasikoa". Juan Luis Goikoetxea Batzordekideari ordea, bere "doctor" tesia Axularri buruz idaztea bultzatu zaio bilkuretan.

Leizarragarren Testamentu Berriari buruz lan handi bat apailatu du eta jadanik aski aurreratu Jesus Lavin Campok, era honetara moldaturik:

a) Testamentu Berrian datozen hitz guztiak alfabetikoki, hiztegi baten antzera, grekerazko originalaz eta latin, ingles eta espainerazko itzulpenekin.

b) Hitzak datozen bersikuluak aipaturiko hizkuntzetan.

c) Lan berbera, baina grekarazko alfabetoaren modura, euskara eta beste aipaturiko hiru hizkuntzetako itzulpenekin, bersikulu eta guzti.

Sail honi dagokion gai bati buruz txosten bat irakurri da Iraileko batzarrean, Sebe Calleja eta Xabier Monasteriok egina: "Las traducciones al euskara de libros infantiles y juveniles".

3.1.2. LITERATUR SARIKETAK

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren babespean bi sariketa egin dira "Toribio Alzaga" antzerkikoa. Iñaki Beobide, Manu Erzilla eta Daniel Landart epaimahaikideak Publikoari gorroto izeneko lanari saria emanaz. Egilea: Xabier Mendiguren Elizegi.

Bigarren lehiaketa "Felipe Arrese Beitia" poesikoa izan da. Alfonso Irigoyen, Juan M^a Lekuona eta Luis M^a Mujika epaimahaikideak Zure argi kliskak tituludun lanari saria emanaz. Egilea: Felix Zubiaga.

Jaurlearitzako Kultura eta Turismo Sailak iragarritako Euskal Letretako Merezimenduzko saria emateko Alfonso Irigoyen jauna izendatu da Euskaltzaindiaren ordezkari. Piarres Larzabal jaunak jaso du saria.

Jaurlearitzako Sail berak jarritako Literatura Sorketa Laguntzarako Juan Luis Goikoetxea izendatu da ordezkari.

Madrilgo Kultura Ministeritzak antolatu dituen lehiaketetarako ordezkari hauek izendatu dira: "Premio Nacional de Literatura"ko Narratiba sailean batzordekide, Andu Lertxundi; Saiokoan, Juan San Martin; Poesiakoan, Juan M^a Lekuona eta Itzulpenekoan, Federico Krutwig.

"Premio Nacional de las Letras Españolas" deritzan sari-
ketarako Alfonso Irigoyen.

"Premio Nacional de Traducción" lehiaketarako epaimahai-
kide Federico Krutwig izendatu da. Literatura Sorketa Laguntzak
banatzeko ordea, Juan San Martin.

"Asociación Artística Vizcaína"k antolaturiko "Udaberria" olerki lehiaketa erabakitzeke epaimahai hau izendatu du Euskaltzaindiak: Alfonso Irigoyen, Juan Luis Goikoetxea eta Patxi Uribarren.

Zarauzko Udalak babesturiko V. Xabier Lizardi saria epaitzeko, Jose Antonio Mujika izendatu da Akademiaren ordezkari.

Durangoko Euskal Jaien mendeurrena dela eta, hango Udalak antolaturiko lehiaketak epaitzeko, ordezkari hauek izendatu dira: Saiokoan, Juan San Martin; Itzulpenekoan, Federico Krutwig; Olerkikoan, Alfonso Irigoyen; Eleberrikoan, Jon Kortazar; Antzerkikoan, Iñaki Beobide eta Ipuin sariketan, Andu Lertxundi.

3.2. ETSAMINEN BATZORDEA

Orain arte Batzorde honek bi zeregin betetzen izan ditu:

- Euskararen Gaitasun Agiria lortzeko azterketa eratu.
- Administrazio lanpostuetarako frogak aztertzen dituzten epaimahaietan partaide izatea.

Lehen zeregin hori Euskal Komunitate Autonomoan Eusko Jaurlaritzaren eskuetan utzi zen bere garaian. Nafarroan ere bertako Foru Gobernuaren eskuetan utzi da, Batzordeak bere azken lanak egin dituelarik herrialde horretan.

Bigarren atalari dagokionez, alor honetan ere gero eta gutxiago joatearen alde agertu da Euskaltzaindia, Itzultzaile lanpostua denean bakarrik joango dela jakin eraziz. Baina hala eta guztiz ere, lehenago hitza emana genuelako, 21 Udal edo Erakunderen azterketetan izan da epaimahaikide.

Ondoren aurkezten dira sailkaturik zeintzu erakundeetan parte hartu den, azterketa eguna, lanpostua eta gainontzeko zehaztasunak.

NOIZ	UDALA	LANPOSTUA	AZTERKETA	PUNTUAKETA
86-1-19	ERANDIO	Biblioteka lagunt.	Aukerazkoa	0-4
86-1-21	BASAURI	Itzultzailea	Nahitaezkoa	0-10
86-2-14	BARAKALDO	Arkitekto Teknikoa	Aukerazkoa	0-3
86-2-19	BILBO	Administrari lagunt.	Aukerazkoa	0-4
86-2-25	SONDIKA	Administrari lagunt.	Aukerazkoa	0-7
86-3-3	LAUKIZ	Kultur Suzpert. Bibliot.	Nahitaezkoa	0-10
86-4-14	BILBO	Ingeniari Industrialala	Aukerazkoa	0-4,5
86-4-14	BILBO	Lan Teknikari lagunt.	Aukerazkoa	0-10
86-4-24	SONDIKA	Administrari lagunt.	Aukerazkoa	0-7
86-5-7	UGAO/MIRAVALLS	Fis. eta Kirol Hez. lagunt.	Aukerazkoa	0-5
86-5-9	BILBO	Pedagogoa	Aukerazkoa	0-3
86-5-19	BILBO	Arkitektoa	Aukerazkoa	0-1
86-7-2	DIMA	Udaltzaina	Aukerazkoa	0-3



NOIZ	UDALA	LANPOSTUA	AZTERKETA	PUNTUAKETA
86-7-21	ERANDIO	Admist. Orokor. Tekn.	Aukerazkoa	0-4
86-7-23	BILBO	O.T.A. Lanetarako	Aukerazkoa	0-1
86-10-8	BILBO	Itzultzailea	Nahitaezkoa	0-10
86-11-18	BILBO	Subalernoak	Aukerazkoa	0-3
86-11-18	GALDAKAO	Itzultzailea	Nahitaezkoa	0-10
86-11-20	GASTEIZ	Euskararekiko Teknikaria	Nahitaezkoa	0-10
86-12-11	BILBO	Gizarte Laguntzailea	Aukerazkoa	
86-12-30	BARAKALDO	Administrariak	Aukerazkoa	

3.3. OINARRIZKO EUSKARARAKO BATZORDEA


Batzorde honek 1986an, Luis de Castresanaren Nadie moria en Zenaury (Herri ahantzia) euskaratu eta argitalpen lana prestatu du.

Xabier Amurizaren hiruko liburu saila burutzeko Oinarriak, 3. mailarako liburua prestatu da. Irakurgaiak aukeratu, gaurkotu eta originala taiutu.

Horrez gain, Batzordearen saileko zenbait libururen berinprimaketak prestatu eta burutu dira.

Batzorde honen birmoldaketa egin beharko denez eta beste ekintza batzuk aintzinatu, Jagon Saileko sorta bat babestea eskatu zaio Iberduerori, Iparragirreri buruz prestatua dagoen liburua lehen emaitza izan daitekularik.

4. AKADEMI-ZERBITZUAK



4.1. ADMINISTRALGOA ETA BULEGOAK

Euskaltzaindiaren egoitza eta ordezkariak jendearekiko harreman eta beste biderapen-arazoei irteera ematen ahalgintzen dira, berauek egunetik egunera ugaltzen doazelarik. Euskararekiko ikerketa eta erakundetzaz kontsulta, itaun edo galderak eta postatrukea bai Euskaltzaindiarena, beronen funtzionamendu, batzordeena eta abarrean koordinatzea izaten da lan astunena. Aipaturiko galde, eskabide eta gutunak Euskal Herri eta kanpotik etorritakoak izaten dira. Honek guztionek egoitzaren lan premia-tsuen suposatzen du eta baita ordezkariena, azken hauei Arautegiko 34. artikuluan ezarritakoa dagokielarik, gehien bat.

Bestalde egoitzako Idazkari-ordetzak jardunaldi, batzarre eta Euskaltzaindiaren plangintza, funtzionamendu eta programaketa burutzen ditu. Guzti honetarako eragileen eta administrazioen laguntzaz baliatzen da. Batzordeak ere, eredu honen arabera funtzionatzen dute, nahiz eta baten bat, Gramatikarena, ordezkari batetatik, Donostiakotik, zuzenki eraman izan.

Erakunde eta zenbait Administralgoren arteko harremanak direla eta nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritzarekin jarriotasuna, zeini bait dagokio Autonomi Estatutuaren 6. artikulua arabera, Erakunde Amankomuna izanik, Euskal Komunitate Autonomoan, euskararen ofizialtasuna. Era berdinez Nafarroako Diputazio edo Gobernuarekin harremanak ugaritu eta sendotu egin dira, beronek sarriago jotzen baitu Euskaltzaindira diktamen eta hizkuntzarekiko aholku bila. Bestalde, ezin ditugu ahortzi beste hiru Foru Diputazio eta Gobernu Zentraleko Hezkuntza eta Kultur Ministeritzarekiko harremanak. Azkenik, atal honetan, ezin utzi aipatu gabe akademi eta ikerketa erakundeekiko harremanak, berauekin lotura iraunkorrak izaten baitu Euskaltzaindiak, bai gai amankomunetan eta bai elkarren arteko laguntza beharrezkoa gertatzean.

Oroit-Idazki honetan ezin dugu ahantzi Euskaltzaindiaren egoitza izateko den bereraikitzeak izan duen "izugarritzko atzerapena", hots, Bilboko Plaza Barrian dagoen lurpeko aparkaleku sarbidearen proiektua. Bilboko Udalak, SURBISA, udal enpresa autonomoa, delakoaren bidez, aipatu aparkalekurako sarbidea, orain arte Correo kaletik zena, San Nicolas Plazatik Euskaltzaindiaren egoitzaren azpitik sarrera edukitzea onartu du. Honak guztionek egoitzaren berriztatze lanen plangintza aldatu eta atzeratu egin du. Honetarako teknikariek eraikuntzaren oinarriak sendotzeaz ikerketak burutu dituzte eta baita egituraren geometri-itxuratzea ere.

4.2. AZKUE BIBLIOTEKA

Ohizko den erosketa politikarekin jarraituz, urtean zehar euskara eta euskal kulturari loturik dauden liburu eta inprimakinak eskuratzen ahalegindu da Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka. Urtean zehar sartu diren aleak hauek dira:

Dohainik/Trukez	4.682
Erosiak	<u>1.376</u>
<u>Guztira</u>	<u>6.058</u>

Hauen artean zenbait azpimarratu beharko dira, beraien balioa delata:

1. Chicagoko Newberry Library-ko Bonaparteren fondoetatik Collins-en Katalogoa eta bertso paperen bilduma, mikrofilmaturik.

2. Gerra aurreko El Obrero Vasco egunkaria (1923-1932) mikrofilmaturik.

3. Eguna, gerraldiko egunkaria, mikrofilmaturik.

4. El Correo Español-El Pueblo Vasco, 1975-1985, mikrofitxaturik.

5. Gipuzkoarra aldizkaria, 1907-1910, bilduma osoaren originala.

6. Peru Abarca-ren eskuizkribu bat.

7. Gianbatista Bodoni-ren Manuale Tipografico (1818).

8. Kartografia sailerako, Iparraldeko "Cartes Geologiques" bilduma, eta A. Walsperger-en Mapamundi (1448), Ben Zara-ren "Carta Nautica" (1497), Andrea Benincase-ren "Carta Nautica" (1508), eta Guillermo Blaeuw-en "Nova totius orbis tabula" (1634).

Aipatu behar, baita ere, Maite Olaran, Donostiako andereak, La Grande Encyclopedie (1886-1903) osatzen duten 31 tomoak opari gisa eman dizkiola Azkue Bibliotekari, eta Jon Bilbaok hizkuntzalaritzako hainbat liburu. Dohainik hartutakoen artean badira Jaurlearitzatik, Diputazioetatik, Nafarroako Gobernutik eta Aurrezki Kutxetatik hartutakoak.

182 tomo koadernatu dira, gehienak egunkari eta aldizkariak direlarik.

Trukezko zerbitzua ere aurten, Argitalpenen Banaketa Zerbitzuarekin batera, taiutua izan da, zerrenda berriak eginez eta fitxa baten bidez kontrolatuz. Trukeak erabakitzeko, eta Bibliotekaren barne zerbitzurako, aldizkari guztiak fitxatu egin dira, milatik gora direlarik fitxatutako aldizkari eta egunkariak. 55 erakundeetara EUSKERA trukez igortzen da eta 16 erakundee-tara dohaini. Euskaltzaindiaren argitalpen guztiak 26 erakundee-tara igortzen dira trukez.

Liburu eta inprimakinen erregistrotik aparte, irakurle eta bisitarien erregistroa ere aurten zabaldu da, lehendik betetzen ziren irakurle fitxetatik aparte, eguneroko kontrola izateko. 1485 irakurlek 1580 titulu erabili dituzte. Irakurle eta ikerleentzat 28.863 fotokopia egin dira.

Bibliotekaren kontabilitate autonomoa ere aurten jarri da, behar diren erregistro liburu eta fitxak horretarako erabiliaz.

Eginkizun berezien artean aipatu behar dira:

a) Paris-ko **"Expolangues"** erakusketarako prestatu da liburu bilduma.

b) Barcelonako **Liber'86** erakusketarako ere Euskaltzaindiaren argitalpenak eta beste batzu prestatu dira.

c) Kartografia erakusketa bat eratu du Azkue Bibliotekak 1986.eko Apirilaren 3/5 egunetan Gasteizko Canciller Ayala Hotelean antolatutako Toponimia Jardunaldietan, azaldutako 136 mapa katalogo batetan finkatuz.

d) Bibliotekari-ordeak Londresera egin du bidaia, British Library delakoan euskal gaiaz arduratzen direnekin harremanak sortuz. Bonaparte Printzearen hilobia ere aurkitu eta argazkie-tan finkatu du.

e) Eusko Bibliographia Elkartearen sortzailetariko bat da Azkue Biblioteka.

f) Teknika berriak eskuratzeko Bibliotekako bi andra langi-leak Gasteizko Biblioteketara egindako bisita.

g) Bisitarien artean ospetsu hauek azpimarratu behar dira: Geoffrey West, British Library-koa; Ivan Ivanovich Magoushinets, Kieveko Unibertsitatekoa; Willian Douglass eta Maria Otero, Renoko Unibertsitatekoak.

h) Bibliotekari-ordea Madrideko Biblioteca Nacional delako Patronatoaren kide izendatua izan da.

4.3.1. ARGITALPENEN BATZORDEA

Batzorde honen begipean Euskaltzaindiak 1986. urtean hurrengo liburuok argitaratu ditu, hots:

1. EUSKERA agerkaria: 1986.
2. Euskararen Lekukoak 12. zenbakiduna: Euscal-errijetaco olqueeta ta dantzen neurrizco gatz-ozpinduba. Luis M^a Mujikak paratua. Bizkaiko Foru Diputazioak babesturiko argitalpena.
3. Onomasticon Vasconiae 1: Toponimia de la Cuenca de Pamplona, Cendea de Cizur. Jose M^a Jimeno Juriok paratua. Eusko Jaurlaritzak babesturiko argitalpena.
4. Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak. Liburu honetan argitaratzen dira maileguzko hitz berrien idazkera eta itxurari buruz eman diren arau akademikoak. Zortzi ataletan agertzen dira erabaki guztiak.
5. Oinarrizko Euskararako Batzordeak: Herri ahantzia. 3. mailako irakurgaiak. Luis de Castresanarena. Imanol Unzuurrunzaga, Batzorde idazkariak itzulia. Iberdueroren babespean argitaratua.
6. Argitalpenen Katalogoa 1986. Euskaltzaindiak berak eta beste zenbait erakunderekin argitaraturikoen berri eta zehaztasun batzu eskaintzen dituelarik.

4.3.2. ARGITALPENEN BANAKETA ZERBITZUA

1. Liburu banaketa. EUSKERA agerkariaz gain Euskaltzaindiak plazaratutako beste argitalpen guztiak ere bidaltzen dizkie zenbait Erakunde, Unibertsitate eta Kultur Elkarteri.

2. Liburu salmenta. Zerbitzu honek 1986. urtean 20.692 liburu saldu zituen liburudenda, ikastetxe, Erakunde, Elkarte eta pertsona pribatuei.

3. EXPOLANGUES. Parisen izen horrekin antolatzen den Nazioarteko Liburu Erakusketan, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritzaren gidaritzapean eta Euskal Herriko beste argitaletxeekin batera, partaide izan zen Euskaltzaindia.

Erakusketa hirugarrenez egin zen eta bertan Argitalpen Katalogoaren zabalkundea egin zen, Otsailaren 18-23 egunetan.

4. LIBER'86. Barcelonako "Palacio de la Metalurgia" deritzan erakustazokan egin zen Irailaren 23-26 egunetan. Erakusketa hau Barcelona eta Madrid hirietan da txandaturik.

Erakusketa honetara joateko gonbitea Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak luzatu zion Euskaltzaindiari, eta han, Foru Diputazioak, Euskaltzaindiak, Eusko Ikaskuntza eta Argitaldarien Elkartea bildurik, Euskadiko standak eskaintzen zituen baldintzak denen artean aztertu ondoren, eramango ziren liburuen zerrenda onartu zen.

Banaketa honetan Euskaltzaindiak 160 liburukiz hornituko 37 argitalpen-titulu eraman zituen, Jon Bilbaoren Euskal Bibliografia gehituz. Haez gain, bertan ugari banatuko ziren Argitalpen Katalogoa ere bai.

5. Durangoko Azokak. Ohi duenez, Durangon Maiatzak 29 Ekainak 1 egin zen I. Euskarazko Liburu eta Disko Azokan eta Abenduan 5-8 bitartean egin zen XXI. Euskal Liburu eta Disko Azoka Nagusian egoteko aukera izan zuen Euskaltzaindiak. Azoka hauetan 700 bat liburu saldu ziren.

4.4. ITZULPEN ETA KONTSULTA ZERBITZUA

1986. urtean ehun itzulpenetik gora burutu ditu Argitalpenen Eragileak. Itzulpenok egin zaizkien zenbait izen hurrengo hauek dira, alegia:

Erakunde ofizialak: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Bizkaiko Foru Diputazioa, Arabako Gobernu Zibila, Bizkaiko Gobernu Zibila, Bilboko Udala, Gasteizko Udala, Iruñeko Udala, Bilbo Handiko Uren Partzuergoa/Consortio de Aguas del Gran Bilbao, Bilboko Nazioarteko Erakustazoka/Feria Internacional de Muestras de Bilbao, Telefónica.

Banku eta Aurrezki Kutxak: Banco Atlántico, Banco Bilbao, Banco Exterior de España, Bizkaiko Aurrezki Kutxa eta Lankide Aurrezkia.

Publizitate enpresak: Alas, Aurman, Deimos eta Gurrutxaga & Etxebarria.

Beste zenbait enpresa eta partikularrak: El Corte Inglés, Imprenta Amado, Imprenta Industrial, Norte Industrial, Traducciones Pawlowsky (Barcelona).

Aldi berean zerbitzu honek kontsulta mailan, bai telefonoz eta bai idatziz, hurrengo gaiei erantzuna eskaini die, alegia: euskara lantzeko metodogintza, euskal gramatika, mailakaturiko irakurketa, alfabetatze orientabideak, euskarazko titulua esku-ratzeko orientabideak, oposaketetarako prestakuntza hizkuntzari dagokiolarik, hiztegegintza eta abar.

5. EKONOMIA

5.1. EKONOMI BATZORDEA

Batzorde honen zeregina nolabait laburbilduz, honako hau esan daiteke: dirua biltzea eta banatzea. Hots, Euskaltzaindiak dituen helburuak eta proiektuak beteko badira, diruz hornitu behar dira eta, bestalde, dirua zentzuz eta neurritz banatzen saiatu, jakina, aldez aurretik Erakundeak erabaki bezala.

Ezaguna da Batzordearen jardupidea. Buruan euskaltzain osoa, batzordekideak: beste euskaltzain oso, Idazkari-ordea, Ekonomi Eragilea, gainera Xabier Gereño eta bi aholkulari: Ekonomi aldetikoa, Alberto Garate, eta Zuzenbide aldetikoa, Federico Gonzalez. Batzorde honek, Arautegiak agindu bezala, argibide aski eskaintzen du.

Ezaguna da ere azken urteotan Euskaltzaindiaren Aurrekontuak izan duen gorakada. Lekarozko bilkuran egin zen horren aipamena. Gure Akademiaren lana bizkortu den heinean, lan hori segura dezakeen dirua inguratzen ahalegindu da Batzordea. Baina Euskaltzaindiaren diru-iturri nagusia Erakunde publikoak direnez gero, ez da ahanzi behar beraien moldera aurkezten direla kontuak, aitzin-asmoak eta ondorioak. Honek eskatzen du disziplina eta seriotasuna, papereria garaiz eta egokiro erakusteko, batez ere batzordeen programetan.

Euskaltzaindiaren langileak ere aipa daitezke hemen. Beraien kategoriak eta alokairuak finkatzea Ekonomi Batzordeari dagokio, Zuzendaritzaren birrespenarekin eta honek kontu emanaz. Puntu honetan, aitortu behar da bide eroso eskaini duela Euskal Herriko Administrazioaren mailan ezartzeak. Urteoroko Lan-hitzarmena berritzea, horretara, askoz errazago gertatzen da, irizpideak markatuak daudenez gero.

Campion-Broussain Elkargoak, jakina denez, gero eta garrantzi handiagoa hartu du, sortu bait zen helburua betetzen ari delako. Hots, Euskaltzaindiak hitzarmenpeko langile zenbait ditu, denbora-epe baterako, bere batzordeen lan-programak egiteko eta Elkargoa arduratzen da guzti horietaz.

Ezin da utzi aipatu gabe Euskaltzaindiak Etxebarrin duen Biltokia. Egin zen ordainketak, zalantzarik gabe, merezi izan du. Ezaguna da urteko salmentaren kopurua, Euskaltzaindiarentzat diru-iturri oparoa. Nekez lor zitekeen salmenta hori, Biltoki zabal eta eroso bat ez balego. Hurrengo urratsa izan behar da, noski, ondare hori informatizatzea.

Baina Erakundeak publikoetatik eta salmentatik bakarrik ezin du Euskaltzaindiak bizi. Asko dira oraindik ere Akademiari beren dirua ematen diotenak. Mundu guztian antzerako Erakundeek gizabanako eta enpresa pribatuengandik jasotzen dituzten emaitzak. Proiekturen bat ere aipatu da, bide hori sendotzeko eta **"Euskaltzaindiaren Adiskideen Elkarte"** edo sorrarazteko. Dela diruz, dela liburu eta aldizkariz, dela bestelako paper eta agiriz, bada, hemen eta kanpoan, Euskaltzaindia laguntzeko prest dagoenik. Ameriketara bertan ikusi da aukera bat.

Jarraian agertzen da 1986 urteko egoera balantzea.

1986. URTEKO BALANTZEA

SARRERAK

Diputazioetatik jasoa		62.621.592,-
Araba	13.933.934,-	
Bizkaia	22.000.000,-	
Gipuzkoa	17.687.658	
Nafarroa	9.000.000,-	
Eusko Jaurlaritzak		69.284.224,-
Estatuko Aurrekontuak		12.000.000,-
Udalak		2.520.400,-
Aurrezki Kutxak		1.550.000,-
Partikularrak		4.235.387,-
Salmentak		9.201.263,-
Bestek		92.879,-

161.505.745,-

IRTEERAK

Zuzendaritzaren esleipen eta Dietak	4.376.794,-
Batzorde eta euskaltzainen bilera gastuak	2.175.483,-
Bulegarien soldatak	25.055.453,-
Segurantza Sozialak	10.013.888,-
Funtzionamendu gastuak	10.436.074,-
EUSKERA agerkaria eta argitalpenak	13.340.840,-
Biblioteka	3.014.805,-
Bestek	5.963.111,-
Hitzartutakoa	36.993.599,-
Orotariko Euskal Hiztegia, programa	30.022.540,-
Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa, programa	11.147.046,-
Gramatika, programa	3.824.418,-
Campion-Broussaini diru laguntza	5.141.694,-

161.505.745,-

6. Aurkitegia

EGOITZA

Arbieto, 3 - 48008-BILBO

Tel. (94) 415 81 55

Arduraduna: Jose Luis Lizundia

«AZKUE BIBLIOTEKA»

Ribera, 6 - 48005-BILBO

Tel. (94) 415 27 45

Arduraduna: Jose Antonio Arana Martija

GORDAILUA

Ntra. Sra. del Camino, 15-3.º - 48012-BILBO

Tel. (94) 415 81 55

Arduraduna: Rosa M.ª Arza

Ordezkaritzak

ARABA

San Antonio, 41 - 01005-GASTEIZ

Tel. (945) 23 36 48

Ordezkarria: Endrike Knörr

GIPUZKOA

Txurruka, 7-2.º - 20004-DONOSTIA

Tel. (943) 42 80 50

Ordezkarria: Juan San Martin

NAFARROA

Museo de Navarra - 31001-IRUNEA

Tel. (948) 22 34 71

Ordezkarria: Jose M.ª Satrustegi

IPARRALDEA

15 rue Port Neuf - 64100-BAIONA

Tel. 07/3359-256426

Ordezkarria: Jean Haritschelhar



EKIN ET

